

Euskaltel-Euskadi Txirrindulariek bidea estuago

Txile 1970-1973

Allenderen gobernuak
landutako esperientzia
sozialista

Antigua Urbieta

Ondarroako
arrantzaileen
bizimodua emakume
baten begietatik

Sarean komunikatzen

Ateak Ireki eta Piztu,
herri mugimenduetan
sustraitutako
hedabideak

Hardcore-Crust

Munduko zirkuitua
etxean bertan


Mungiako Larramendi ikastola

Gurasoen artean
euskararen erabilera
bultzatzeko ekimena

Net Hurbil



Amazonen
lan baldintza
penagarriak
haizatu ditu
kazetari batek

www.argia.com/multimedia




Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.




Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.





Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.




Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soruluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko irailaren 15a, 2.382. zenbakia

ASTEKO GAIA

TXILE 1970-1973 Allenderen 1.000 egunak.
NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

PERTSONAIA

ANTIGUA URBIETA: «Gure gizonak itsasoan arrantzale eta gu andreak etxean, bakarrik». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

SAREKO HERRI-HEDABIDEAK Mugimendu herritarren ahotsa. LANDER ARRETXE / 16

IRITZIAREN LEIHOA

FINANTZA OLIGOPOLIOA HELBURU MIKEL ZURBANO / 20

EUSKALTZALETASUNA METATU MIKEL IRIZAR / 22

EUSKAL HERRIA 2025EAN, ESTATU GISA PENTSATZEN

HASTEKO GARAIA JOXERRA AIZPURUA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTETA / 21

TXANDAN Aspe. ITXARO BORDA / 22

BERTSO BERRIAK Nor gara gu? Zer gara gu?
MIREN AMURIZA PLAZA / 23

ZIRTA Atsedetik ez, drogari gabe. IRATXE ESNAOLA / 24

ERDIKO KAIERA

MUSIKA Hardcore-Crust zirkuituak gogor dirau Gipuzkoan.
IKER BARANDIARAN / 26

DANTZA GARAIKIDEA Sormen prozesua bide eta helburu.
MYRIAM GARZIA / 30

MUSIKA OLATZ KORTA / 32

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Dantza berriak, bertsoei jarriak.
AINHOA MARIEZKURRENA / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

EUSKALTEL-EUSKADI Harrobiak erreferente nagusia galdu du.
JON TORNER ZABALA / 39

LANEKO GAIXOTASUNAK Kromoaren ondorioz hildako langilearen enpresa zigortu du Donostiako epaitegiak.
URKO APAOLAZA AVILA / 42

MUNGIKAKO LARRAMENDI IKASTOLA Euskaraz aritzeko koherentzia minimo bat. HAZI HEZI ALDIZKARIA / 43

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Amazonen kazetari gazteak aurkitu zuen usina orweldarra. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

TXILE 1970-1973

Allenderen 1.000 egunak

Duela 40 urte, 1973ko irailaren 11n, Augusto Pinochetek estatu kolpea jo zuen Txilen eta, berriki baieztatu denez, Salvador Allendek bere buruaz beste egin zuen. Horrenbestez, 16 urteko diktadura iluna hasi zen Hego Amerikako herrialdean, eta Salvador Allendek hiru urte lehenago hautesontzietan irabazitako agintaldia amaitu.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |



Allenderen hautagaitzaren aldeko manifestazioa. Allende lautan aurkeztu zen presidente izateko hauteskundetan. Lehenengo aldiz, 1952an, emaitza kaskarra lortu zuen (botoen %5).



BIDE LUZEA egin zuen politikan Salvador Allende Gossens (1908-1973) zirujauak Txileko presidentziara iritsi baino lehen. 1929an sartu zen politikan, Avance taldearen eskutik. Lau urte geroago Txileko Alderdi Sozialistaren sortzaileetako bat izan zen. 1939an Osasun ministro izendatu zuten Aguirre Cerdáren gobernuan, 1943an Alderdi Sozialistako idazkari nagusi, eta 1966an senatuko presidente. Lautan izan zen Txileko presidente izateko hautagai, 1952an, 1958an, 1964an eta 1970ean. Lehen ahaleaginean bozken %5,44 besterik ez zuen lortu, bigarrenean nabarmen egin zuen gora %28,91 eskuratuta, eta hirugarrenean inoizko emaitzarik onenak lortu zituen, %38,92; baina Eduardo Frei eskuineko hautagaiarentzat izan ziren botoen %55a baino gehiago.

Jorge Alessandri aurkaria zen 1970eko irailaren 4ko hauteskundeak irabazteko faborito nagusia, inkesta guztien arabera. Dirudienez, hautagai kontserbadorearen garaipenaz ziur, AEBetako Gobernuak ez zuen ahalegin handirik egin Allenderen aurkako kanpainan (ITT enpresaren bidez 250.000 dolar inguru iritsi omen zitzaizkion Alessandriri). Beste iturri batzuen arabera, AEBetatik bidaliko laguntzak zazpi zifra zituen. Hala izan bazen, ez zen nahikoa izan Alessandriren ahuleziak estaltzeko eta hauteskundeak Allende irabazi zituen (%36,6), atzetik, gertu, Alessandri zuela (%34,9).

Washingtonen erantzuna berehalakoa izan zen. Richard Nixonen aginduz, CIAk bi plan prestatu zituen Allende presidente izan ez zedin. Track One planak kongresuak Alessandri aukeratu zezan zuen helburu. Track Two planak, ezegonkortasun politikoa sorra-

razita, hauteskundeen emaitzak bertan behe-
ra geratuko zirela aurreikusten zuen. Bi pla-
nek porrot egin zuten, urriaren 24an kongre-
suak Allende izendatu zuen presidente eta
azaroaren 4an hartu zuen kargua.

Lehen neurrien arrakasta

Unidad Popular alderdiaren gobernu berriak berehala abiarazi zuen ekonomiako sektore giltzarrien nazionalizazioa. Txileko baliabide nagusiak atzerriko enpresen esku zeuden nagusiki, eta gobernuaren neurriek baliabide horien etekinak ihes ez egitea eragingo zuten. Horrez gain, Freik abiatutako nekazaritza erreforma bizkortu eta sakondu zuen Allende, sistema latifundista deuseztatuz. Gobernuaren lehen urtean Txileren BPGk %8 egin zuen gora, kanpainan agindutako hitza beteta gainera: kontsumo produktuen prezioa izoztu zuten eta langileen soldatak igo zituzten. Paperezko dirua jaulkita lortu zuten hori, eta gobernuko ekonomialariak arrazoi zuten: billeteak jaulkitzeak ez zuen inflazioa puztu-ko, epe laburrean behintzat. 1968tik 1972ra gutxieneko soldata hirukoiztu egin zen (*El Mercurio* egunkari eskuindarrak 1989ko irail-
lean argitaratu zuenez).

Ekonomia alde batera utzita, eremu sozia-
lean ere hobekuntzak nabarmenak izan ziren. Osasun arloan, mediku kopuruak %6,6 egin zuen gora Allenderen agintaldian, erizain kopuruak %17,8, eta odontologoena %31,5. 1972an osasun gastuek aurrekontuaren %3,5 hartu zuten (hurrengo urtean hasiko zen diktaduran batez besteko gastua %0,6koa izango zen). Hezkuntzan, 6 eta 14 urteko eskolaratzea %94ra iritsi zen. Liburuak, eskolako materiala eta gosaria doan banatzen zitzaien oinarritzko

Neurri ekonomiko nabarmenenak

HONA HEMEN UPren gobernuak 1970. urte amaieratik Pinocheten estatu kolpera bitartean hartutako neurri ekonomiko nagusiak, kongresuan gehiengoa zuen oposizioa gaindituz batzuetan, aurkari politikoen babesaz besteetan.

- Txileko historiako nekazaritza erreformarik sakonena burutu zen. Latifundio sistema ezabatu eta, guztira, 5.294.750 hektarea nekazarien artean banatu zituzten.



HISTORIA ALTERNATIVA

- 1971n kobrearen nazionalizazioa onartu zuen kongresuak, 1966an Eduardo Freiren gobernuak abiatutako prozesua gauzatuz. Oposizioaren babes osoa izan zuen neurriak eta, ondorioz, Txileko esportazio baliabide nagusia Estatuaren esku geratu zen (lehen, kobre hobi gehienak enpresa estatubatuarren esku zeuden).
- Urte berean, gatzua minerala nazionalizatzeko prozesua burutu zen, Soquimich enpresa esku publiko-etara pasa zenean.
- Bethlehem Iron Mines enpresa nazionalizatuta, Estatuak burdina eta ikatz ekoizpenaren ardura hartu zuen.
- Banku pribatuen nazionalizazio prozesua abiatu zen. 1971 eta 1972. urteetan Txileko banku pribatuen erdia, gutxi gorabehera, kudeatzen hasi zen Estatuak.
- Telefono konpainia nazionalizatu zuten, ordurarte ITT (International Telephon and Telegraph) enpresa estatubatuarren eskutan zegoena.
- Estatu enpresak sortu zituzten produktuen merkaturatzea eta banaketa bermatzeko: Enavi, Eca, Dinac, Dinatex, Dirinco... Lehen, sektorea atzerriko enpresek monopolizatzen zuten: Williamson Balfour, Duncan Fox eta Codina.

hezkuntzako haur guztiei, eta baliabide gutxien zuten ikasleentzat bazkaria ere doakoa zen. Haur bakoitzari egunero litro erdi esne banatzeko neurria berehala jarri zuen indarrean UPren gobernuak, eta barne ekoizpena nahikoa ez eta esnea inportatu behar izan zutenean ere doako banaketa atxiki zuten. Bestalde, alarguntza pentsioa hildakoaren erretiro sariaren %50ekoa zen 1970 arte, eta %100era igo zuen gobernu sozialistak.

Etxebizitzarena arazo larria zen Txilen. Allenderen agintaldia hastean 480.000 etxe behar ziren herrialdean, eta 1971ko maiatzeko lurrikarak defizita 520.000raino igo zuen. Freiren agintaldian, urteko 39.000 etxebizitza eraiki ziren, Pinocheten diktaduran aldiz, 30.000. Eta UPren gobernuak arazoa konpontzea lortu ez arren, kopurua 52.000ra igo zuten.

Oparoaldiaren arrakalak

Laborantzaren erreformak arazoak eragin zituen Txileko nekazaritza industria indartsuan. Lurrak nekazarien esku utzi zituzten, baina lurjabe berriek ekoizpen prozesuaren zati bat baino ez zuten kontrolatzen eta ez zuten nahiko baliabiderik eta denborarik izan sistema berrira egokitzeko.

Gainera, moneta neurrigabe jaulkitzearen ondorioak nozitzen hasi zen ekonomia: infla-

zioa %225era iritsi zen 1972an, eta %606ko markara 1973an.

Prezio sistema librea debekatuta, prezioak gobernuak ezartzen zituen. Ekonomiak hazteari utzi zionean oinarritzko kontsumo produktuen urritasuna iritsi zen eta, horrekin batera, prezio ofizialak biderkatzen zituen merkatu beltza izugarri hazi zen.

Belarmino Elgueta Txileko Alderdi Sozialistako diputatu ohiaren arabera, “zalantzarik gabe, UPren zuzendaritza politiko eta administratiboak akatsak egin zituen proiektua gauzatzerakoan. Baina akats horiek ez dute oinarritzko proiektuaren baliagarritasuna ukatzen, eta ez dituzte ordurarte lortutako emaitza positiboak indargabetzen”.

Etsaiak etxean eta kanpoan

Akatsak akats eta Txileko ezkerrearen zatiketak zatiketa –komunistek amaieraraino babestu zuten Allenderen gobernuak, baina sozialisten artean geroz eta ozenago entzuten ziren harekiko desadostasunak–, UPren oztoporik handiena aurkari politikoak ziren. Agintaldia gutxiengo garbian hasi zen. 1973an parlamentua aukeratzeko hauteskundeetan, UPk 1970eko emaitzak hobetzea lortu zuen (%43,5). Oposizioak botoen bi heren behar zituen Allende kargugabetzeko. Eta lortu ez



Salvador Allende Txileko kongresuan, albo banatan Jorge Ibáñez eta Tomás Pablo dituela. 1970eko hauteskundeak irabazi arren, UPren gobernuak gutxiengoan eta oposizio bortitza gaituztuz gobernatu behar izan zuen hiru urtez.

arren, Allendek gutxiengoan gobernatzen jarraitu zuen eta oposizioa hurbiltzeko ahaleginak alferrikakoak izan ziren. Gainera, hasieratik, Txileko goi eta erdi mailako gizarte taldeek kalera eraman zuten Allenderen neurriek eragindako ezinegona, eta ondorioz, Txileko gizartearen polarizazioa areagotu egin zen. Ekonomia kaltetu zuen baita ere oposizioak sustatutako boikotak: enpresak ixten zituzten, hainbat sektoretan lanuzteak bultzatu, oinarritzko produktuak suntsitzen edo ezkutatzen zituzten hornitze arazoak areagotzeko...

Allenderen erreformen aurretik, Txileko ekonomia sektore etekintsuenak enpresa atzeritarren esku zeuden gehienbat (eta atzeritarrek diogunean, nagusiki estatubatuarrek esan nahi dugu). 1970eko irailaren 15ean Richard Nixonek gerora ezaguna egingo zen esaldia bota zion CIAko zuzendari

Richard Helmsi: “Txileko ekonomia garrasika utziko dugu”. Eta ederki ahalegindu ziren: kreditu lerroak eten zituzten, Txilek AEBetan zituen kontuak blokeatu zituzten, finantza erakundeak estutu zituzten Txilen inbertitu ez zezaten... Christian Delois historialari frantziarraren arabera Txilek 1972an jaso behar zituen 270 milioi dolarretatik 32 besterik ez zituen eskuratu, AEBen blokeoa medio.

AEBetako Gobernuak Allendek kargua hartu baino lehen ere hasi zen sozialistak boterea lor zezan eragozteko ahaleginean, hiru urte eman zituen Txileko oinarri ekonomikoa leherrarazten eta duela 40 urteko estatu kolpean ere zuzeneko parte-hartzea izan zuen –lehenago argi ez bazegoen, 2010ean CIAk desklasifikatutako 20.000 dokumentuek zalantza izpirik ez dute uzten–.

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

Allenderen irudia zikintzeko obsesioa

ALLENDEREN IBILBIDEAREN bertsio faltsutu eta interesatua 1973ko irailaren 11n bertan abiatu zuten estatu kolpea justifikatu nahi zutenek, APren gobernuaren Txileko nahiz atzerriko aurkariak. Baina azken urteotan Allenderen aurkako obsesioak izena eta abizena ditu: Víctor Farías filosofo txiletarra eta Berlingo Unibertsitate Libreko irakasle ohia.

2005ean Faríasek polemika piztu zuen *Salvador Allende: Antisemitismo y Eutanasia* argitaratu zuenean. Liburuan Faríasek jarrera arrazistak, homofoboak eta antisemitak egozten dizkio Txileko presidente ohiari. Allendek 1933an *Higiene mental y delincuencia* izeneko tesia prestatu zuen mediku titulua lortzeko, eta Farías testu horretan oinarritu da Allenderen “bekatuak” nabarmentzeko. Nazioarteko eskuineko prentsak titular deigarrien bidez zabaldu zuen Faríasen “aurkikuntzaren” berri: *Allende faxistatzat eta antisemitatzat* joa eta *Allende heroi sozialistak homosexualitatea “senda” zitekeela uste zuen* zioen *The Daily Telegraph* kontserbadoreak.

Batetik, Allendek tesia idatzi zuenean urte batzuk falta ziren Bigarren Mundu Gerrarako eta urte gehixeago homosexualen aldeko eta arrazismoaren aurkako mugimenduek indarra hartzeko. Beraz, Allenderen hitzak ezin dira, besterik gabe, egungo testuinguruan txertatu. Bestetik, Allenderen jarraitzaileek diotenez, haren tesian agertzen diren erreferentzia antisemita, arrazista edo homofoboak ez dira egilearen hitzak,

Cesare Lombrosoren aipuak baizik; eta Allendek Lombrosoren iritzia kritikatzen ditu, hain zuzen. Bertsio bat zein bestea egiaztatu nahi duenak http://www.elclarin.cl/fpa/pdf/tesis_sag.pdf helbi-dean aurkituko du Allenderen tesi osoa.

Handik urtebetera, 2006an, Faríasek beste liburu bat argitaratu zuen: *Salvador Allende: el fin del mito*. Alemaniako Errepublikak federal ohieko hainbat dokumentutan oinarrituta, Txileko Alderdi Sozialistak 1930eko hamarkadan naziekin izan zituen harremanak eta Allenderen gobernuak SESBekin izandako loturak ditu hizpide. Allenderen aldekoek, besteak beste, Txileko kongresuak Hitlerri bidalitako gutun bat erabili zuten Faríasen teoria berriak errefusatzeko; gutuna Kristal Hautsien Gauaren ondoren (1938) bidali zuten, gau hartan naziak egindakoa salatzen du argi eta garbi eta Salvador Allenderen sinadura dauka, besteak beste. Egoitza Espainiako Estatuan duen Presidente Allende Fundazioak Faríasen aurkako auzi eskea egin zuen, Txileko presidente ohiaren aurkako kalumniak argudiatuz.

Auzi eskeak ez zuen aurrera egin, baina Faríasek piztutako polemikak ere ez. Hala ere, ez zuen amore eman bere gurutzadan; 2010ean *Los Documentos Secretos de Salvador Allende. La Caja de Fondos En La Moneda* argitaratu zuen Allenderen inguruko konspirazio kontu amaiezinekin jarraitzeko. Oihartzun txikia izan zuen hirugarren atal horrek.



Soldaduak eta suhiltzaileak Salvador Allenderen gorpua Moneda jauregitik ateratzen, bolibiar pontxo batean bilduta, 1973ko irailaren 11n.

Zer gertatuko zatekeen estatu kolperik izan ez balitz? Balizko errota biraka daramatza 40 urte, eta galderak ez du erantzun garbirik. Allenderen 1.041 eguneko gobernu obra bukatugabea da, bat-batean etena. Zaila da indarguneen merituak eta ahulguneen erruak banatzea, ezkerreko sektoreen idealizazioa eta eskuinekoen desitxuratzearen gainetik, ondorio objektiboak ateratzea, hiru urteko proiektuaren ekarpenak nabarmentzea. 1997an ikerlari talde batek ahalegin bikaina egin zuen Allenderen agintaldiari errebaso zehatz eta objektiboa egiteko. *Los mil días de Allende* bi liburuki mardulez osatutako proiektuan gaiari buruzko dokumentazio bilketa sakona egin zen, gerora hainbat interpretazio egiteko erabili izan eta erabiliko dena. Baina proiektuko arduradun Arturo Fontaine eta Miguel González Pinok onartu bezala, azterketa objektiboak egitea “ez da erraza, bereziki gaiak duen karga ideologikoa-gatik”. Errazagoa da Allenderen 1.000 egunek utzitako irakaspen garbia aipatzea, munduko beste hainbat tokitan eta garaitan ere agerian geratu dena: AEBen interesak ukitzea oso arriskutsua da. ■





ATERA IDEIA HORIEK BURUTIK

Senti zaitez zeure negozioari ekiteko aske

Edozein bideri ekiten zaionean, gogoa eta proiektu on bat dira abalik hoberenak. Horregatik, zeure etorkizuna eraikitzeko modurik onena ekitea dela uste baduzu, **Gaztenpresa Fundazioan / LABORAL Kutxan** zure konpromisoarekin bat egin eta bide osoan lagun izango gaituzu, hasieratik amaierara arte.

2013/14KO

EKINTZAILETZA PLAN BERRIA

- Diagnostikoa
- Bideragarritasun-plana
- Dirulaguntzen gestioa
- Lehenetsunezko finantzaketa
- Abian jartzeko izapideak
- Jarraipena eta finkapena

Gaur egun zurea bezalako 3.000 negozio daude abian Gaztenpresa Fundazioaren / LABORAL Kutxaren laguntzari esker.



www.laboralkutxaekintzailletza.com



LABORAL
kutxa

«Gure gizonak itsasoan arrantzale eta gu andreak etxean, bakarrik»

Ahokotasuna da Antigua Urbietan. Da historia bizia, da lekukotasuna, da emakumetasuna, da memoria, da iragana, oraina, eta geroa, da Jabier Kaltzakortak behinola esandako 'urregorria'. Da ahaz bezain bizi idazteko abildadea duen ondarrutarra.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Berbetan iaioa zarena badakit. Oraindik orain jakin dut eskribitzen duzuna.

Neure gizona hil zitzaidanean hasi nintzen. Jose [Uribe] hil eta urtebetera. Arantzazura joatea pentsatu nuen, egun batzuk pasatzen, neu bakarrik, eta neure barru-barrukoak eskribitzea pentsatu nuen. Etxean seme-alabei esan eta umea etorri zitzaidan –30 urte zituen orduan, 40 baino gehiago orain, baina umea esaten diot nik hari oraindik, umea!–, koaderno hauxe atera eta esan zidan: “Atxari gauza politak ipintzeko neukan gordeta baina orain zeuk ipini”. Horrela hasi nintzen. Neu harritu nintzen, neukan deskalabruaz zelan eskribitu nuen, umoreaz. Berezkoa! 2000. urtean hasi nintzen, gizona hil eta urtera.

...

“Kaixo, Joxe: Alde batera ez duzu igarriko non demontre nabilen. Badakizu non naizen? Arantzazuko fraideekin. Zu zeuk txarto pentsatu barik! (...) Joan zinenean, harrezkero esango zenuen: ‘Oraintxe ibiliko zara zu ederto, salto eta brinko, hamazazpi urte baze-neuka modura!’. Baina horra hor, zer egingo eta internora etorri! [Berak hala esaten zien umei: ‘Gaizki portatzen bazarete, internora’] Ez duzu sinistuko baina zu falta eta dena falta! Lehenengoko sarrera itzela izan da *casa de ejercicios*-en. Holako ejertzizioak modukoak, santo kristo ohearen gainean dela... Egia esan, buruaren gainean baino hobe da aurreko aldean santo kristoa! Nahi duzu gauza bat

esan? Eskritorio bat dauka gelak, eta Antzolooren [etxe handi bat zen Ondarroan] itxura hartzen diot pixka bat! Galdu dut haria, klaro, bada!... Badakit! Desiratzen nengoela honaxe etorteko eta zeuri kontuak kontatzeko. Ez dakit non zaren ere, baina zauden lekutik, ez dit ardura ez badidazu erantzuten ere, baina seguru naiz entzuten duzula. Eliza-ren atzeko aldean dauka bentanea, eta denboralea hementxe da: haize eta euri, uxoletan dago atzekaldea. Zarataz, ez dut lorik egingo! (...) Irratia piztuko dut, entzuteko. Egia esan,

NORTASUN AGIRIA

Antigua Urbietan (Donostia, 1938). Ondarrutarra. Bost ahizpa dira, bera hirugarrena. Irakurzalea txikitandik, etxean libururik ez eta auzoan irakurri ei zituen, Antzolo etxean eta Augustin Zubikaraireraren, honen umeak zaindu bitartean. Arrantzalea aita, arrantzalea gizona –1960an ezkondua, lau seme-alaba, zazpi loba–, bertatik bertara bizi izan du itsaso eta arrantza giroa. Idatzi ere zuen horretaz. Halaber, idatzia du bere aita Hipolito Urbietan zenaren biografia gisakoa, eta esaera zahar bilduma *Ondarroa* aldizkarian. 1995etik hona idatzitako hainbat bertso ere gordeta ditu ahizpak horretarako berariaz emandako koadernoan. Eta, barrura begira, urtero Arantzazura joan eta senar defuntuari kontatzen dizkionak ere jasoak ditu. Gainera, eskualdeko *Hitza*-n, argitaraturiko zutabeak. Antiguaren altxorra, irakurlearekin banatzea merezi duena. Gure memoriaren zaindaria.



ANTIGUA URBIETA

ez du gogorik ematen, deskalabrua baino besterik ez dute kontatzen eta. Ez dakizu asko zertzuk pasatzen diren, gero eta okerrago goaz. Eguraldiaren moduan dabil dena. Jo eta ke irabazi arte. Nire ustez, hola ez goaz inora, baina! Dena dela, txanda baten modura, egunero zer entzungo! Gure txikiek ez dakit zer ikusiko duten!”...

Zuen txikiak, lobak dituzu...

Lehenengoko loba ezagutu zuen. Bigarrena ez, eta zazpi dira oraintxe! “Ez duzu sinistuko zelako hutsunea zurea gure etxean, eta ez nik bakarrik, denak! Gaixotuta egon dira. Ez dakit nire falta hain handia hartuko duten! Ikusi duzu kanposantuan, zelako dotore zauden? Irakurri duzu Kirmenen kartapazioa? Hark bai zu ondo ezagutu! ‘Maitasun keinua’ (...) Ez daukat ezelako presarik eta bihar gehiago. Ez duzu sinistuko esaten badizut askoz ere lasaigo nagoela. Hauxe barik ez neukan bakerik. Zeure bila nabil han eta hor. (...) Zelan bilatuko zaitut, neuk ere ez dakit nondik nora nabilen neu eta. Lehenengo zu topatuko zaitut eta gero neure burua, ze erdibituta topatzen naiz. Jose, gehiago idazteko ahalmenik ere ez daukat eta bihar arte. Beti izan zaitut maite eta hala jarraituko dut hil arte. Zeu izan zara nire lehenengoko [gizona] eta, harrezkero, itxurak itxura, azkena. Bihar arte”.

Hamahiru urte, Arantzazura bueltan, koaderno hartuta, barrua kontatzen.

Iaz falta izan nuen, loba jaiotzeko zegoelako. Baina aurten ere ez dut falta. Oraintxe etorri naiz. Bakarrik joaten naiz, autoan. Gauza naitzen arte, ibiltzeko asmoan naiz.

Hiru koaderno mardul erakutsi dizkiguzu, letraz beteak. Laugarrena bertsoz dator, etxekoei jarritakoak, urtebetetze eta gainerako. 90eko hamarkadan Ondarroan egindako literatura sariketan saritutako hiru lan, *Lea-Artibaiko*

Aitzol Aramaio

“Agur gure Aitzol, agur eta ohore / gugandik aldendu zara. Bizitzaren lege edo ezbeharra / ezustean agertu da. Baina zure aurpegi alaia, bizitzeko zenuen garra / sekulan ez zaigu guri ahaztuko, eta horregaz gelditzen gara”.

Hitza-n 2009-2010ean idatzitako zutabeak... Ondarroa beti, ondarrutarrez ari zara, Donostiako Altzan jaioa izanagatik ere.

Gerra ostekoa naizelako! Gure aita Hipolito, gerran ibili zirenean, Pasaia joan zen. Hemen, batzuek armak hartu zituzten eta beste batzuk arrantzan ibili ziren, gure jendea jaten emateko. Gure aitaren moduan. Itsasotik etortzen zen, ordea, eta beste arrantzaleen andreak galdezka: “Ikusi duzu gure gizona?”. Gure aita ikusi zituen txalupak, arrantzaleak erdibituta, kokotea bistan... Eta zelan esan hori andre haiei? Sufri-mendu handia zeukan. Eta erdiberbak ere baziren: “Batzuk hemen eta besteak non dauden ere ez dakigu!”. Pasaian, berriz, orduantxe hasi zen arrasteko arrantza mugimendua, eta hara joan zen, Anparo andrea hartuta. Altzan hartu zuten etxea, eta hantxe jaio nintzen ni. 5 urte nituen atzera Ondarroara etorri ginenean. Baina ni donostiarra! Kar, kar, kar.

Gabriel Arestiren *Gosetea* kantatzen du Oskorrik, gerra osteaz.

Ni akordatzen naizena, eskolara ezin joana, oinetakorik ez genuelako. Abarketak jantzita joan eta eztula eta abarra. Askok gustatzen zitzaidan joatea, baina ezin, eta horrek pena demasa ematen zidan. Esan nahi dut, premia ikusi nuela. 5 urte nituela Ondarroara etorri, eskolara hasi 6rekin... Ondarrutarra sentitu naiz beti.

Aita baino abertzaleagoa, ama.

Bai, “nazionalista abantzara!” esaten zuen berak. Aitak jokabide txarra emanda zeukan —gerran ihes egiteagatik, bada, gorriekin ibili zelako—, eta ama juezaren aurrera joan zen esanez beraren gizona gizon on-ona zela, ez zitzaiola gerrarik ez endredorik gustatzen, eguneroko mezatako gizona zela eta hau eta hura. Orduan, berari galdetu zioten: “¿Y usted?”, “¿Yo? ¡Nazionalista abantzara!”. Hala



Onddoak

Bartolo
taberna - jatetxea

**Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala**

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

edo hola, libre atera zuen gizona. Baina ez zeuden Ondarroan ondo eta horregatik joan ziren Pasaiara. Gero, gauzak baretu zirenean, Ondarroara berriz. Amak Ondarroan nahi zuen. Horregatik ipini zidan izena Antigua, hemengo amabirjinaren izena.

Amaren abertzaletasuna...

Behin, Francoren andrea Mutrikura etorri zen, zer edo zer inauguratzera. 8 bat urte edo izango nituen. Guretzat, autobusean Mutrikura joatea gauza handia zen. “Nora zoazela?”. “Francoren andrea dator Mutrikura...”. Guk ez Franco ez haren andrea, ez genekien ezer. Gure amak bai! “Zeu hara joan?”. Ezetz. Nik neure arrazoiak. Amak, ezetz. “Esan ez zoazela!”... Beste batean, Zornotzan bazen eskola bat, eta sekzio femeninokoak bazuen han hile bat edo bi guk umeok pasatzeko denbora. Nire lagun guztiak joan ziren. Ni ez. Esan nion amari, neure beharra egin, jolasak, ikasi, ez zela besterik. “Zeeer? Falangistak! Fuera!”. Pentsatu ere ez joatea.

Aita baino beroagoa ama.

Bai, aita sekula ez zigun gerrako konturik kontatu. Amak esandakoak egiten genituen. Aita, isilik. Sekula ez genion ezer entzun. Ez gerra ez beste. Endredorik ez zitzaion gustatzen. Adibidez, ETAre hilketak ez zitzaizkion gustatzen, disparte iruditzen zitzaion. Baina Imanol [Oruemazaga] kartzelatik irten zenean, hainbeste jende hari harrera egiten herrian, hura gustatu zitzaion. “¡Al carajo!” [Pikutara!] esaten zuen. Edo guardia zibilen muturren aurrean ekintzaren bat egiten zutenean... Horiek bai, gustatzen zitzaizkion. Baina berba motzekoa zen aita. Gurean ama zen kontu esantzailea, berba egokia zeukan, zabala berbetako era, lehengo kontuak kontatu! Pena hari gehiago ez entzutea!

Amaren aldekoa zara horretan.

Itxura! Beti esaten dut: gure ama ez balitz egon alai eta umoretsu, nik ez nuen jakingo orain dakizkidan kantu guztiak, berari entzundakoak dira-eta. Berak kantatu egiten zituen, eta nik entzun eta ikasi. Lehengo batean, San Inazio eguna, eta koadernoan ipini nuen gure amari ikasitako kantua. Sekula ez diot inori entzun –fabrikan andre bakarren bati, akaso, ni trokoa nintzenean, 12-13 urtekoa–, gure umeek ez dute ikasi, eta hauxe egingo da galdu! Sabino Aranaren kantua da, San Inazioaren martxan. Eta beste bat, “San Inazio” barik “Inaki” dioena, Euzkadi, euzkotarrak eta Lege zaharrak. [Biak kantatu dizkigu] Amari entzunda ikasiak ditut biak. “Hauxe egingo da galdu eta, orduan, hemen-



Besarkada

"Arantzazun, emakume batek ikusten ninduen beti eta, 'arratsalde on!', eta 'arratsalde on!', beste barik. Ez nekien bera zein zen, eta berak ere ez neu. Egun batean, berak: 'Emakume hau zein ote da, bada. Ikusten zaitut beti kartapazioa, liburua, koaderno edo zer edo zer hartuta! Gustura jakingo nuke zein zaren, andereño, maistra edo dena delakoa'. Nik: 'Horietarikoa ezelakoa ere ez ni', eta han non ateratzen zaidan: 'Ni naiz Euskadiko poetarik gazteenaren ama!'. Harritu egin nintzen esanaz. Halako fardamentua! Ez naiz halakoa-eta. Eta berak diost salada-salada: 'Hara hor! Bada ni naiz Euskadiko poetarik zaharrenetarikoa ama!'. Xabier Leteren ama izan! Eta gure besarkada!".



txe koadernoan ipiniko dut". Eta, gaur, ostera ere hemen San Inazio!

Aita arrantzalea, gizona ere arrantzalea...

Eta gizonaren anaia guztiak, denak arrantzaleak. Ezin hurrerago bizi izan dut itsasoko mundua. Halako batean, idatzi nuen: "Gure arrantzaleen bizimodua, emakume baten begietatik". Hemen lehorrean zer edo zer pasatzen bazen ere, itsasoan pasatutakoa beti zen handiagoa. Denboralea nahiz zer edo zer. Isildu egin behar zinen beti. Gure Txomin jaio zen ordurako, gure gizona patroiz zebilen. Neguan eskolak izaten ziren, haietara joan eta patroiz izan zen. Lehenengo ume biak etxean jaio ziren, gizona arrantzale, eta pobre-pobre gu. Hirugarrena jaiotzeko zegoela, gizona patroiz, prosperatu egin genuela eta mundu guztia klinikara joaten zenez, neu ere bai. Horra hor ume biak etxean ondo baino edertoago etxean eduki, eta hirugarrenaz, indarra aldrebes egin nuela, egin nuela, ez nuela, ahizpak sartu behar izan zuen kirolfanoan. Odol asko galduta nengoen, hilko nintzen, sentitu barik, sufritu barik... Ez nuen medikuaren bozik entzuten ere. Ahizpa sartu zenean, Margarita, orduantxe zer edo zer. Etxekoa, familiakoa izatea zer den. Hari zer edo zer ulertu nion. Entendimenterik ere ez neukan ordurako: "Antigua! Umea edukitzera zoazela, umea! Egin jaramon medikuari. Jaramon egiten ez badiozu, bertan hilko zara!". "Indarra, zer esaten ari da?"... "Neuri egin jaramon!", ahizpa Margaritak. Nahi dizut esan zelako txarto ibili ginen. Eta hurrengoko egunean, umea ikusteko ere, indar guztiz ari nintzen begiak irekitzeko. Ezin ireki! Ez nuen ikusi. "Ondo da?". "Bai". "Zenbat kilo?". "Hiru eta zortziehun". "Errakitiko orduan!", nik. Etxean lau kilo eta gehiago jaiotzen ziren! Umeak buruko azala apurtuta zeukan, belarria ere

Urbiara heldutako poza

"Estu eta larri aldapan gora / heldu naiz Urbia aldera. Inguru guztia begiratu eta / sentitu dut zirrara. Mendi, harri, zuhaitz eta erreka / bizi-bizirik natura. Abere, txori, kirkil eta abar / nigana inguratu dira. Bee, muu, arrantz eta krikrizka / ongiatorri kantatzera neuri".

halamoduz, feo-feoa zen koitadua... "Sentitzen dut, baina egun gehiagoan geratu beharko zara", medikuak esan, eta ni pozik. Egutetik egunera, guapotzen gure umea! 27 bat urte izango nituen. Etxera etorri, parean zeudenak jaten hasi nintzen, eta neure onera etorri nintzen. Jose itsasora irtenda zegoen, 21 egun egiten zituen orduan. Bazetorrela esan zidatenean, hartu bi ume zaharrenak, hartu ume jaioberria eta portura, barrara, beraren bila. Hasi ni zer edo zer esaten eta, "ez didazu, bada, niri kontatuko, hura marea pasatu duguna!". Holaxe. Itsasoan beti handiagoak. Jakina, han ikusi ninduen, kolore ederrak, bularrak bete-bete, ni, beraren andrea! Sinetsi ez. Beti arrantzaleena oker handiagoa: denboralea, arriskua... Gure amak ere: "Gizona ondo atenditu, ur handietan dabil beti eta". Beti gu hobeto lehorrean. Gogortu egiten dira gizonak itsasoan, gogortu eta lotsatu maitasuna agertzen. "Matxoteak", lehen esaten zena... Gure gizonak itsasoan arrantzale eta gu andreak etxean, bakarrik.

"Lehorrean beti hobeto". Zer zen Ondarroa 60ko hamarkada horretan, frankismoan? Hemengo Andoni Arrizabalaga eta gainerako.

Gu hantxe, olagarroa lantxe, barruan. Eta gure umeak? "Lehengusuak" genituen denak. "Lehengusu" bat dator gaur, egun batzuk pasatzen". Beti "lehengusuak". Eta herri batetik bestera baten bat eroan behar zenean, neure ahizpa Margarita eta gure umeak atzean, autoan, gutxiago igartzeko. Gaueko orduetan, umeak lo. Haiek dena zekiten. Zer tamaina arte, ez dakit. Horrela zen lehenago eta horrela bizi genuen. Gero ikusi genuen nahikoa zela, horrela ezin zitekeela izan, beste zer edo zer behar zela. 2000. urtean, koadernoan idazten hasi nintzenean, ikusten nuen hala ez zela izan behar. ■



EUSKARA

ZURE SARE SOZIALIK ONENA



MATRIKULATU!

EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK 2013-2014

ESKATZAILEAK (Bete beharreko baldintzak)
16 urtetik gorakoa izatea Donostian erroldatuta egotea
edo hirian lan egitea

DIRU LAGUNTZAK JASOTZEKO

Euskaltegian matrikulatu Dokumentazioa ezarritako
epean aurkeztu Gutxienez urrats bat gainditu
eta % 85eko asistentzia izan

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK

Urrian hasiko diren ikastaroak:
2013ko irailaren 16tik azaroaren 8ra (biak barne)
Otsailean hasiko diren ikastaroak:
2014ko otsailaren 3tik 28ra (biak barne)
Udako ikastaroak, Barnetegiak eta
Autoikaskuntza ikastaroak:
ikastaroa hasi eta hilabetearen barruan

LANGABETUENTZAKO DOAKO EUSKARA IKASTAROAK 2013-2014

ESKATZAILEAK (Bete beharreko baldintzak)
18 urtetik gorakoa izatea Donostian erroldatuta egotea
gutxienez sei hilabetez jarraian
Langabezi egoeran egotea gutxienez
sei hilabetez jarraian

IKASTAROETAN PARTE HARTZEKO

Euskaltegian matrikulatu
Dokumentazioa ezarritako epean aurkeztu

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

2013ko irailaren 2tik 20ra Donostiako edozein
Euskaltegi homologatutan

Mugimendu herritarren ahotsa

Euskal Herrian asko eta orotarikoak izan dira herri ekimenez sortu diren hedabideak. Garai batean irrati librean fenomeno zabaldutako bezala, interneten garapena akuilu izanik sareko herri-hedabideen loraldia bizi dugu urteotan. Bi adibide hartu ditugu: Nafarroa lan-esparru duen Ateak Ireki eta Donostialdeako Piztu.

| LANDER ARRETxea |

KEZKA BERETIK ABIATU DIRA Ateak Ireki, Piztu zein beste hainbat herri-hedabide, bakoitzak bere eredia garatu duen arren. Aitortzen dutenez, ezaugarri asko partekatzen dituzte, eta anaia-arrebatzat dituzte Topatu edo desagertu berri den Branka gisako ekimenak. Ateak Ireki bi urteko ibilbidetan ikasitakoa du bere alde; Piztuk, hasiberriaren freskotasuna.

Biek ala biek, lotura estua dute kolektibo eta eragile sozialekin. Piztuko kide Ander Suberbiolaren arabera, “herri-mugimenduei ahotsa ematea eta haien lana ikusaraztea” da proiektuaren helburua. Elkarlana sustatu nahi dute donostiarrek: “Herri-mugimenduentzat tresna bat izan nahi genuke, eta bertako kideek gurean parte hartzea”. Zentzu horretan, topaketak antolatzeke asmoa dute, “eragileen errealitatea ezagutu eta horretara moldatzen ahalegintzeko”.

Ateak Ireki webguneko arduraduna da Miguel Angel Llamas, ezizenez “Pitu”. Dienez, kalean gero eta jende gehiago ari da lanean eta “horrek bere isla behar du” sarean zein hedabideetan.

“Kalean egiten dena sarera eramateko plataforma da gurea, bozgorailua”. Lanerako materiala ere elkartrukatzen dute beste hainbat herri-hedabide eta mugimendurekin.

Sarean, ikus-entzunezkoak nagusi

Sareko herri-hedabideen ugaritzeak lotura zuzena du interneten garapenarekin, Suberbiolak onartu duenez. Internetek komunikazioaren eremuan orain arte indarrean zegoen logika irauli duela dio: “Gure proiektuak eta antzekoek nekez egingo lukete aurrera internet gabe, pauso garrantzitsua izan da informazioaren eta komunikazioaren demokratizazioan”. Hala ere, ez du uste kalea edota paretak erabiltzeari utzi behar zaionik.

“Sareak ez ditu orain arteko euskarri eta tresnak ordezkatu behar, aukera berriak gehitu baizik”.

Sareko herri-hedabideetan ohikoa da ikus-entzunezko edukien nagusitasuna. Pituren arabera, oro har, bideoak bilatzen dituzte interneteko erabiltzaileek, eta eduki mota horrek du arrakasta gehien. Alabaina, gero eta testu landuagoak eskaintzen saiatzen dira Ateak Irekin. Ikuspegi bera dute Piztuko kideek ere: “Oraingoan ikus-entzunezkoak dira abiapuntua, komunikazio kanal indartsuena dela uste baitugu, baina beste edozein aukeratarako prest gaude”.

Lehia ez, alternatiba bai

Herri ekimeneko sareko proiektuak bidea egiten ari diren bitartean, internet eta sare

sozialen mundu ezegonkorra moldatu nahian dabilten hedabide tradizionalak. Dena dela, Pituk eta Suberbiolak ez dute uste ohiko telebista edo egunkariei konpetentzia egiten dietenik. Ateak Irekin esaterako, edukiak elkartrukatzen dituzte beste hainbat hedabiderekin. “Elkarlana sustatzen

saiatu gara, bai Nafarroa mailan eta baita Euskal Herri osoko komunikabideekin ere”. Horretarako, ezinbestekoa da zein albiste joratu eta zein ez erabakitzea. “Truñean edo Nafarroan zerbait gertatzen bada, lehenengoak izan behar dugu horren berri ematen, baina esaterako, ohar ofizial bat argitaratzen badute, ez da gure lana hori zabaltzea”.

Suberbiolak ere hedabideen arteko elkarlana eta osagarritasuna funtsezkoa dela deritzo, are gehiago baliabide murrizten dituzten hedabideen artean. Piztuko lantaldea arreta handiz ari da aztertzen dagokien lan esparrua zein den, ez baitute *Irutxuloko Hitzak* egiten duen lana errepikatu nahi. “Hutsuneak betetzea da gure eginkizuna”. Zentzu horretan,

“Komunikazio eremuan hutsune bat zegoela ikusi genuen, ez zela herritar guztien ahotsa eta iritzia hedabideetan islatzen”

Ander Suberbiola, PIZTU



Ateak Irekik argitaratu zuen, besteak beste, mozorrotutako bi gaztek Iruñeko Sanferminetako txupinazoan ikurrina nola eskegi zuten erakusten duen bideoa.

“Donostian indar asko duten zenbait hedabideren alternatiba” izan nahi lukete.

Piztu. Lehenengo pausoak

Oraindik eratze prozesuan den herri-hedabidea da Piztu. Duela urtebete sortu zen egitasmoa abiarazteko ideia, lau lagun komunikazioaren inguruan gogoetatzeko ari zirela. “Komunikazio eremuan hutsune bat zegoela ikusi genuen, ez zela herritar guztien ahotsa eta iritzia hedabideetan islatzen”. Hala ere, proiektuak aurrera egin badu jende askok kezka hori bera duelako dela uste du Suberbiolak: “Gu ez bagina elkartu eta honekin hasi, beste batzuek ekingo zioten, ziur asko”. Martxoan bloga ireki zuten haien asmo eta ideiak sarean zabaltzeko xedez. Hilabete horretan bertan egin zuten lehenengo batzar irekian hamabost lagun elkartu ziren, eta geroztik, astero biltzen dira.

Hamabost horiez gain, noizbehinkako lanak egiteko prest dauden herritarren sarea ere osatu dute. “Jende asko gauza txikiak egiten, hori da gure erronka”. Erabakiak aste-roko asanbladan hartzen dituzten arren, lantalde txiki-gotan banatu dira, “gauza batzuk ezin baitira denon artean zehaztu”. Kideei dagokienez, gazteak dira gehienak, baina badira 40 urtetik gorakoak ere. Parte-hartzaile guztiek borondatez egiten dute lan, eta oraingoz ez dute inor soldatapean kontratatze asmorik.

Behin betiko webgunea garatu bitartean, blogean (itsasargia.wordpress.com) eta sare sozialetan plazaratzen dituzte sortutako edu-

kiak. Ikus-entzunezko lanak egin dituzte nagusiki. Maiatzaren 30eko greba egunean Donostian gertatzen zenaren jarraipena egin zuen taldeak, eta “oso pozik” geratu ziren emaitzarekin. Horrez gain, *Krisiaren argi-itxalak* bideo-elkarrizketa sorta ari dira osatzen, non adin eta egoera anitzeko herritarrek krisi ekonomikoak haien bizitzan nola eragin duen azaltzen duten.

Azaro hasierarako prest izan nahi duten webguneak ere, herritarren parte-hartzea izango du oinarri. “Sare handi bat osatu nahi dugu, herritar eta eragileekin. Iritzi atala blogen bidez osatuko da, eta nahi duenak berea sortu ahal izango du”. Haatik, ez da webgunea Piztun aurrera begira duten eginkizun edo erronka bakarra, urte bukaeran komunikazioaren inguruan gogoeta egiteko jardunaldiak antolatze asmoa dute.

“Herritar sare zabalagoa osatu eta herri-mugimenduekin harreman estuagoa izan nahi dugu, interesgarria den informazio guztia plazaratu ahal izateko”

Miguel Angel Llamas ‘Pitu’,
ATEAK IREKI

Ateak Ireki. Ibilbide arrakastatsua

Ateak Irekik 2011n hasi zuen bidea, baina aurretiko proiektu baten jarraipena da: Apurtu.org hedabidearena. Errepresioa mintzagai zuen albistari hau 2007an sortu zuten, eta orduan ere, ikus-entzunezko lanak zituzten oinarri. Pituren hitzetan, euskarriari dagokionez “aitzindariak izan ziren”,

albistegi bat eta LiveStream bidezko telebista kanal bat jarri baitzuten martxan. Trabak ere izan zituzten ordea, eta ez nolanahikoak. 2011n webgunea itxi zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak, Askatasuna erakundearen komunikazio tresna zela argudiatuta. Lau kide atxilotu zituzten, eta epaiaren ostean,



horietariko bat espetxeratu. Apurtu proiektua bertan behera geratu zen arren, kazetari eta herritar talde batek Ateak Ireki sortu zuen webgunearen itxieraren aurkako elkartasun ekimen gisa.

Pituk adierazi duenez, 2011tik hona “nahiko ezaguna bihurtu da webgunea”. Sanferminetan sortutako 12 ikus-entzunezkoek, esaterako, 400.000 ikustaldi izan zituzten guztira; Ateak Irekik argitaratu zuen, besteak beste, bizar banarekin mozorrotutako bi gaztek Iruñeko Sanferminetako txupinazoan ikurri-na nola eskegi zuten erakusten duen bideoa. Norbaitek Nafarroan gertatu den zerbaiti buruz informazioa bildu nahi badu, haien webgunera jotzen duela dio Pituk. Halaber, gero eta e-mail gehiago jasotzen dituzte beste batzuek sortutako eduki eta albisteekin. “Garai batean borrokan aritzen ginen, jendeak edukiak bidal zitzen, orain ordea, gutxi batzuk baztertu ere egin behar izaten ditugu”.

Lantaldeari dagokionez, bi lagun arduratzen dira webgunea egunero gaurkotzeaz, eta beste bostek bideogintza dute eginkizun. Webgunearen arduradunak dira eragileekin bilerak egin eta gainontzekoen lana koordinatzen dutenak. Hala ere, ez diote egitura erabakitzeari ordu askorik eskaintzen. “Maiz denbora gehiegi pasatzen dugu proiektu

Piztuko kideek asteroko asanbladan hartzen dituzte erabaki nagusiak. “Jende asko gauza txikiak egiten, hori da gure erronka”. Eskuineko argazkian, joan den maiatzaren 30eko greba orokorraren jarraipena egiten, Donostian.

baten oinarriak finkatzen, ezer egin gabe. Gure kasuan, praktikak erakutsi digu zer garen eta gure bidea zein den”.

Ateak Ireki proiektuak bi lan eremu ditu, webgunea eta ikus-entzunezko ekoizpena. Bigarren alor horretan, hainbat talde eta mugimendurentzat ordaindutako lanak egiten dituzte. Diru horren bitartez “ozta-ozta bizirauteko adina” lortzen dute bi arduradunek, eta hala, webguneari behar duen denbora eskaintzeko aukera dute. Izan ere, egunean 10-14 orduz lanean aritu beharra dute sarri.

Bide beretik, *Nork eraman ditu sosa* Nafarroako ustelkeriari buruzko –CANeko ustelkeria tarteko– dokumental trilogiaren arrakastari esker, buruan dituzten ekimenak aurrera eramateko baliabideak erosi ahal izango dituztela dio Pituk. Haatik, diru-iturri finkorik ez dutenez, produkzio-etxe bat sortu eta hura egonkortzea da taldearen erronka nagusia. Aurrera begira, Nafarroa osora heltzen ahalegindu nahi dute: “Gu Iruñean bizi gara eta zailagoa da beste zonaldeetara iristea. Hori dela-eta, herritar sare zabalagoa osatu eta herri-mugimenduekin harreman estuagoa izan nahi dugu, interesgarria den informazio guztia plazaratu ahal izateko”. ■



XABI & PETTI Bidean - LP/CD	NEIGHBOR Ura Patrikan - CD	LOS GALERNA Akelarre - LP/CD	CAPSULA Solar Secret - LP/CD	BIDE ERTZEAN 77 - CD	GAZTELUPEKO HOTSAK WWW.HOTSAK.COM
NORMAN Perkins - LP	LA JODEDERA Karibe Kantauri Kantari - CD	GASTEIZ BIG BAND W'ellington - EP	DE 2 EN BLUES BAND Groovin' the Blues - CD	IGOR ARZUAGA Experience - CD	


Errabal, 23 - 20590 SORALUZE
tel. +34 943 753 016
fax +34 943 750 139
gaztelupeko@hotsak.com

Holakoak eta Halakoak

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak





DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Finantza oligopolioa helburu

ESPAINIAKO ESTATUKO finantza sektorearen berregituraketa prozesuak aurreikusitako gidoia jarraitu du eta Santander, BBVA eta Caixabank erakundeengintza finantza oligopolioa indartu egin da. Gainera, egoera oligopolistiko hau are gehiago puztuko da Nova Caixa Galicia eta Catalunya Banc enkantean jarriko baitira laster batean. Kutxabanke ez bezala Sabadell eta Popular finantza erakundeek prozesu honetatik ere onurak atera dituzten arren, etekin garrantzitsuena aipatu hiru erakundeek atera dute.

Finantza berregituraketa gauzatzeko argudio ofizialak lurperatu ditu errealitate ekonomikoak eta arrazoi ezkutatuak begi bistan geratu dira. Prozesua beharrezkoa omen zen finantza sektorea garbitzeko eta zutarrak indartsuen gainean biziberritu eta bideragarri egiteko. Esan ziguten hau zela ekonomia produktiboak kredituak berreskuratzeko giltza. Europar Batas-

hauek irentsi ditzaten beren botere oligopolikoa handituta. Gizarte osoak galdu egin du gutxi batzuk onura jasotzeko: finantza zuloa estaltzeko erabiltzen ari den diru bolumena gizarte murrizketen tamainakoa da. Areago, berregituraketak ez du bere helburua bete, izan ere, bi urte beranduago herritarrentzako zein enpresentzako kreditu lerroak trabatuta jarraitzen du.

Finantza merkatuaren egitura oligopolistikoa elite politiko eta ekonomikoaren helburu bakarra dela erakusten dute horren alde ezarri berri diren neurriek. Esaterako arazoak dituzten erakundeak zero kostuan erosten dituzte banketxe erraldoiek lehengoan saneamendurako FROBek inbertitutako dirua ez baitute itzuli orain arte. Gainera, batzuetan laguntzak ere jasotzen dituzte erosketa gauzatzeko garaian, hala nola Babes Aktiboen Eskemen kasuan zeinetan etorkizuneko galerak ordaintzeko konpromisoa ez duen erosleak hartzen baizik eta altxor publikoak. Hau da CAM erakundearen erosketan Sabadellek eta Banco de Valenciaren erosketan Caixabanke erabili duten tresna.

Artean kreditua izoztuta daukate finantza erakundeek, beren aurtengo irabaziaz %35 igo dituzten arren. Aitzakia jarduera ekonomikoa geldirik dagoela da, baina jakina da negozio ildo ziurrakoa eta errentagarriakoa dutena: Europako Banku Zentraletik %1ean maileguz eskatu eta Espainiako zein beste EBko hegoaldeko herrialdeetako zorra erosten dute horren trukean %5-7 inguruko interes garaia eskuratuta. Estatuen bizkar banketxeek negozio borobila egiten dute Europako Banku Zentralaren arautegiak horretara behartuta. Ezin dugu ahaztu, gaur egun Espainiako Estatuko zorraren interesen ordainketa gure zergekin ordaintzen dugun aurrekontuko lerro nagusia dela. Bistan da, finantza oligopolioa indartzearen kalte-ordaina soldatapeko edo errenta xumeko herritarrok gauzatzeko duguna. ■



Finantza zuloa estaltzeko erabiltzen ari den diru bolumena gizarte murrizketen tamainakoa da. Areago, berregituraketak ez du bere helburua bete, izan ere, bi urte beranduago herritarrentzako zein enpresentzako kreditu lerroak trabatuta jarraitzen du

neko erreskatea finantza sektoreari bideratutako kreditu lerro baten gisa aurkeztu zuen Madrilgo Gobernuak, diru publikoan eraginik ez omen zuen izango, dirua sektoreko erakundeek beraiek itzuliko zutelakoan.

Uda garaian FROBek (Espainiak finantza berregituraketarako sortutako erakundeak) onartu du banketxei bideratutako diru bolumen ia osoa (36.000 milioi euro) galdutzat ematen duela. Gainera, finantza erakunde kutsatuen galerak handitu egingo direla aurreikusten du instituzio honek eta, beraz, diru publiko gehiago erabiliko da banketxe hauen zuloak estaltzeko eta ondoren banketxe handiak kosturik gabe



Mikel Irizar

TOPAGUNEKO PRESIDENTEA ♦



DANI BLANCO

Euskaltzaletasuna metatu

BERNARDO ATXAGA idazleen Olinpora igo berritan, lagun euskaltzale batek harekiko kritika zorrotza luzatu zidan. Kritika ideologikoa zen, lagunak kutsadura arriskutsua ikusten baitzuen Atxagaren pentsamoldean. Baina, hor gelditu gabe, zalantzan jarri zuen idazlearen euskaltzaletasuna benetakoa ote zen edota bere ekarpena euskarari mesedegarri izango ote zitzaien. Eta nik, nire artean: “Bernardo Atxaga ere kanpoan utzita, norekin egingo du euskarak aurrera?”.

Kontu zaharra da, baina ordutik gaurdaino askotan –gehiegitan– ikusi dut nola euskaltzaletasuna lotzen zaion pentsamolde jakin bati eta bestelakoei ukatzen zaien “benetako” euskaltzale izaera. Eta hau izan zitekeen, beste barik, setakeriaren enegarren adibidea; baina gaia oso da larria, zer kasu honetan setakeriak barru-barrutik ahultzen du euskararen aldeko herri mugimendua.

Euskarak ezinbestean behar du aldekotasuna sendotzea eta metatzea, gutxiegi gara euskaldunak –eta gutxiago euskaltzaleak– behar bezain eraginkorrak izateko. Are ahulago elkarri uko egiten badiogu. Politika instituzionalen bidez egoera eraldatzeko beharrezkoa da gizartean sortzea politika horien aldeko masa kritikoa, aurkakoak antolatuta ere ez daitezen gehiengo izan.

*Euskararen etsai
behar luke soilik
euskararen erabilera
edo garapena
espresuki galarazten
duenak*

Eta hori ahalbidetzeko zoru komunak eraiki behar dira. Baina argi izanda zoru komunak zabalak izan daitezkeela bakarrik oso oinarritzko ideien inguruan. Edukian xehetasunak gehitu ahala, kideak galtzen dira. Zoruak behean daude, goikoak sabaia dira.

Horregatik, eta oinarria joanda, euskararen etsai behar luke soilik euskararen erabilera edo garapena espresuki galarazten duenak. Beste guztiak, baita euskararekiko pasibo edo axolagabe direnak ere, izan daitezke zoru komun baten partaide, euskararekin batera helburu jartzen bazaie bizikidetza, berdintasuna, erantzukizuna edota errespetua.

Landa lanek erakusten dute gutxi gorabehera hiritarren heren bat garelako euskaldunak, eta beste heren bat dagoela nolabait euskararen alde. Euskaltzaleon lana da, lehenik eta

behin, urrats bat atzera egitea bakoitzaren ideologia politikoan euskaltzale guztiak dugun interes komunaren inguruan biltzeko, eta gero horren gainean gure arteko lankidetzak sendotzea eta ugaltzea.

Eta horrekin batera, axolagabeak alde jartzea, eta alde daudenak zale bihurtzea, eta euskaltzaleak are gehiago aktibatzea... Meta horren gainetik bistaratuko dugu normalizazioaren itsasoa. ■



DANI BLANCO



**Itxaro
Borda**



IDAZLEA

Aspe

ASPE ibarrak *ghost valley* irudipen zerbait daukala onartzekoa dut, naharrez, asunez eta herdoilaz azpatu bide ertzeko etxeak errautsez perdukatuak eta salgai ikusten ditudanean. Somporteko lurpekoa zulatu zen duela hogeitaz haranarentzat etorkizun ekonomiko zoriontsua iragartzen zuten politika gizonen zuzendaritzapean. Escoteko zintzurretik hara kamioiek, lerroan eta abiadura handian, zeharkatzen dituzte Sarrantza, Cete-Eygun eta Urdoze. Noski, Jean Lassalle diputatua Lourdiosen bizi da, monoxido karboniko pozoitu zikinkeria horretarik urrun beraz!

Eyguneko geltoki abandonatura itzuli den Petetin apatxea argi zegoen behintzat: ez dute, autoek zein trenbideek, herrialde bihirik sekula dinamizatu. Argumentu falaziosoa da erabat. Aurkaria, ibarraren antzera, suntsitu zuten. Kotxe sainduaren izenean sakrifikatu da Aspe gurbila, iluna, ederra, aberatsa, irekia, oinezkoen paradisu! Eta jakina, Lassallek boterean darrai, neurri handi batean barnealdeko euskaldun abertzaleei esker, Maitia ez aukeratuz Inchauspere mutila pasatzen utzi zutelako.

Aspeko haurrideek barkatzen ez digutena oraino. ■





Joxerra Aizpurua

♦ INDUSTRIA INGENIARIA

Euskal Herria 2025ean, estatu gisa pentsatzen hasteko garaia

JOAN DEN abuztuaren 19an François Hollandek, Frantziako presidenteak alegia, bere gobernu elkartu zuen 2025. urtearen inguruan zein nolako Frantzia izatea amesten duten eztabaidatzeko. Berri hau oso berri-emai le gutxitan azaldu zen, baina niretzat munduan abuztuan gertatu den berririk eredugarrienetakoa izan da.

Enpresa ertain eta handietan ohikoa izaten da plangintza estrategikoak prestatzea hurrengo hiru zpalau urtetarako, baina gehienok urteko kudeaketa plangintzekin funtzionatzen dugu. Hauteskundeetan alderdiek hauteskunde-programa plantatzen dutenean euren asmo estrategikoen berri ematen dute, baina horiek gehienetan hautesleen botoari begira egiten dira. Izan ere, gauden krisi egoeran, egunetik egunerako sorpresen zain gaudela, enpresek eta estatuek inoiz baino gutxiago begiratzen diogu biharkoari eta are gutxiago etzikoari.

Frantzian, aldiz, etzikoari begiratzea erabaki dute eta horretarako abuztuak arlo askotan eskaintzen duen tregua garaia aukeratu dute. Baten batek pentsa dezake Frantziak krisia gainditze bidean duenaren sentimendua duela eta beste gauza batzuetan pentsatzen hasteko gai dela.

Iritziak iritzi, nire ustez, Frantziak egindako mugimendu

hau planifikatuta zuten agintariek eta egoerak lagun, une aproposa topatu dute aurtengo abuztuan, ez baita lehen aldia Frantziako Gobernua horrelako burutaziotan sartzen dela.

Eta Euskal Herria 2025ean nolakoa nahi dugun amestu al dezakegu euskaldunok? Euskara, hondakinak, energi iturriak, portuak, aireportuak, enpresak,

*Gauden krisi egoeran,
egunetik egunerako
sorpresen zain
gaudela, enpresek eta
estatuek inoiz baino
gutxiago begiratzen
diogu biharkoari eta
are gutxiago etzikoari*

osasuna, Espainia, Frantzia, Europa, subiranotasuna, haurrak, zaharrak... Gai asko ditugu amesteko.

Ziur naiz Frantziako Estatua-
ren ministroak elkartu direnean
militatzen duten alderdiko karne-
ta alde batera utzi dutela eta
barruko izaeraz aritu direla. Guk,
euskaldunok, noizko
era horretako ari-
tak? Estatu izan nahi
badugu ez dugu aitzak-
kiarik. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

**Miren
Amuriza Plaza**



Doinua: Gai horrek
badu mamia.



Zer gara gu? Nor gara gu?

“Zer gara gu? Nor gara gu?”
kantak dinon gisara:
pozik hartzen genuenak
ehun pezetako paga,
gogotsu joan ginenak
fakultateetara,
gaur Lanbide-ko atean
gauden gazte ilara,
jolasean jarraitzeko
helduegiak jada,
ta lanik ez izateko
gazteegiak gara. (bis)

Agintari, ez gaitzazu
engainatu faborez,
esanez diru-laguntzak
ito direla zorrez.
Juan Carlosek guri kendu
ta koltxoipean gordez,
Raxoik bere kamaradak
ornitu ditu sobrez,
Hollandek Siria erasoz
babesa eman ordez...
Dirua egon badago
baina guretzako ez. (bis)

Lausotzen hasia dugu
garai zaharren gomuta;
lehen etxetik joatea zen
bizilege arrunta,
gaur egun da gehienentzat
ezinezko burruka.
Nahiz ta krisialdi hau ez
epe motzean buka,
bestela ere haizea
aurkituko dugu ta,
ez gaiten gera eskuak
poltsikoan sartuta! (bis) ■

Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Atsedetik ez, drogarik gabe

HARUKI MURAKAMIREN *Zertaz ari naiz korrika egiteaz ari naizenean* narrazio autobiografikoa lagun izan dut udan, *From chocolate to Morphine* drogen gida ilustratua-rekin batera. Ez dakit egunerokoak erakartzen dizkidan irakurketak edo irakurritakoek mugiarazten ote nauten, izan ere, udaren puska handia korrika egitera irtenez eta festan horditurik eman baitut.

Murakamik fondoko korrikalari izatearen eta eleberri luzeak idaztearen artean dagoen elkar eragina aztertzen du, eta harentzat, niretzat bezala, maratoni baterako —edo lasterketa umilago baterako— entrenamenduaren ezaugarriak idaztearenak ere badira. Erresistentziaz, konstantziaz eta kontzentrazioaz ari naiz. Kontrara, bada uste duenik idazleak ahalik bizitza osasungaitzena eraman behar lukeela orden publikotik eta ohitura onetatik ihesi eta ez inolaz japoniarraren kirol aktibitate eskergan nahasi, nahiz Murakami bera 30 urteak bete arte gau klub baten gidari eta nagusi izan zen, gero, eleberriak seriozki idazten hasteko erabakia hartzeaz batera, bizitza hura lagatzeko.

From chocolate to Morphine gidan ageri diren droga kontsumitzaile eta sortzaile hainbaten aitortzek erakusten didate drogen bidetik sormenari ekiten. Bertan ezagutu dut anfetaminak hartzea beharrezko duen idazlea, kokainara atxikitako pintorea, Valiumera lotutako poeta, opiaceoi men egin dien kantaria, peioteak bidea argitu dion eleberrigilea, PCPak botere psikikoak esnaten dizkion gidoilaria. Kreatibitatea handitzeko, edo inspirazio iturritzat, egileek tradizioz erabili izan dituzte drogak.

Aurretiazko ideia bat banuen, ustez, esperientziatik eratorria. Drogaturik idaztean emaitza eskasak erdietsi izan ditudanez, noizbait erabaki nuen korrika eginez laguntzea idazketa, kafe, pilula, alkohol eta enparauak baztertuta. Drogak parrandarako

utzi, eta manikeoa izanagatik, praktika “ez osasungarriak” praktika “osasungarriekin” orekatzeko ilusioa bizi. Usteldu zait ustea uda honetan droga endogenoen ezagutza egitean. Burmuinak sortzen ditu droga endogenoak, substantzia kimikoak fabrikatuz eta gure gogoan, pentsamenduan eta akzioetan eraginez. Katalogoa zabala bezain anitza da. Gure endorfinen opiaceoen efektu gehienak eragin ditzakete, gure adrenalina eta noradrenalina droga estimulagarriak dira. Hormona sexualak, berriz, antidepresiboak. Modu berean, korrika, meditatzen edo idazten “entonatuak” senti gaitezke. Drogatua egotearen eta ez egotearen mugak ez daude nik uste tokian, hortaz, ezta osasungarritasunarenak ere.

Kurioski, drogon ahalmenaz parrandan jabetu naiz bizien. *Progresive* musika bat dantzatzen ari nintzela, jendez inguraturik eta zero izartsuaren azpian, batasun erabatekoa sentitu nuen gainerako gorputz arima izerdituekin, nola kanpo substantziarik kontsumitu gabeekin, hala toperaino sartuekin, denok modu berean drogatzen baiktuen partehartze eta elkartze sozialaren “subidoiak”, alegia, batasun sentimenduaren “kolokoiak”. Joanda ematen dugu eguna dirudienez, eta testu honi erreparatuta, egiatan kolokaturik nagoela pentsatzen jarritan nago. Bide batez, orain hobeto ulertzen dut 1998an Espainiako Barne Ministerioak Drogen Plan Nazionalerako eginarazi zuen kanpainaren estrategia. *A tope sin drogas* lema itzulpen okerra medio, “Atsedetik ez, drogarik gabe” bihurtu zen orduko leloa.

Ituan jo zuen ustezko akatsak, eta orduan barre karkaila ez gutxi sorrarazi zidana, drogen gaineko egia instituzional profetikoa zait gaur. ■



Antton Olariaga



Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

Hardcore-Crust zirkuituak gogor dirau Gipuzkoan

70eko eta 80ko hamarkadetan gaur egun baino askoz musika estilo gutxiago entzuten zen, eta zaleak askoz fidelagoak (eta itxiagoak) ziren hautatutako musika motarekiko. Gerora, 90eko hamarkadan, beste musika estilo batzuk lantzen hasi ziren, eskaintza zabaldu egin zen eta “tribuen” eragina arindu egin zen. Pop, rock, hardcore edo trash zaleak, punkyak, heavyak, siniestroak, gero eta errazago nahasten ziren eta, lehen ez bezala, edozein gaztetxe, taberna, diskoteka edo aretotan aurkitzen ziren estilo horietako taldeen proposamenak. Ordutik hona, gauzak ez dira askorik aldatu. Gutxi dira estilo jakin bati lotutako eszenak.

| IKER BARANDIARAN |

Argazkiak: Juanma eta Ariane Prieto

80KO HAMARKADAN hain anti-sistema izandako punk, hardcore, crust taldeak Andoain, Egia, Azkoitia, Arrasate, Lekeitio eta Oñatiko Gaztetxeetan jotzen aritu ziren 90eko hamarkadaren erdialdera arte. Sasoi horretan, bir-moldatutako diskoteka eta kontzertu aretoetara joaten hasi ziren horietariko talde asko.

Hori guztia jakinda, oso zaila da gaur egun musika estilo bat (edo batzuk) kokagune zehatz bati lotzea, eta batasun horrek ekarri dezakeen aberastasuna galdu egiten da. Horren salbuespena, hardcore-crust estiloen inguruan bereziki Gipuzkoan sortutako zirkuitu iraunkorra dugu. Getariako Gaztetxea, Zarauzko Putzuzulo eta, batez ere, Trintxerpeko Mogambo kontzertu areto autoeratuak dira horren enbor garrantzitsuenak, nahiz eta badiren tartera, halako kontzertuak antolatzen dituzten beste Gaztetxe eta ekimen batzuk Eibarren, Urretxun, Beasainen...

Aukeratutako hiruetatik Mogambo da beterranoena (20 urtetik gora), baina Getariako eta Zarauzko Gaztetxeek ere urte asko daramate ia astero hardcore-punk eta crust emanaldiak antolatzen, bertako zein kanpoko taldeei plazaratzeko aukera ematen eta musika zale askori eskaintza aberatsa eskuragarri jartzen. Kasu horietan guztietan, jakina, DIY formula da nagusi (zuk zeuk egizu!), inongo etekin ekonomikorik bilatzen ez dela.

DIY formula gauzatu ahal izateko, jende askok egiten ditu lan. Hiru lagunengana jo dugu. Batetik, Fres dugu, Mogamboko programazioaz arduratzen da, eta Etengabeko



Mundo Muerto taldea (AEB),

Zarata jardunaldien antolatzailea ere bada, eta dozenaka taldetan parte hartu du —gaur egun zazpi taldetan dabil, ezagunenak RAS eta Humilitate—. Bestetik, Juanma, 90eko hamarkada erdian Lasarteko Eskola Okupa-



tuetan kontzertuak antolatzen zituen, gaur egun Getariako Gaztetxean dihardu, eta Hell Division eta Dictadura taldeetako abeslaria ere bada. Azkenik, Putzuzulon Zaratazarautz ekimenaren bitartez kontzertuak antolatzeaz gain, Erantzun! eta Humilitate taldeetako kide den Hodei.

DIY kasu ia guztietan bezala, hiru lagun hauek musika zaletasunagatik eta lagunei mesede egitearren hasi ziren kontzertuak antolatzen. “Guk antolatu ezean ez zegoen gustuko taldeak ikusteko modurik”, aitortu digu 1986an lehen kontzertua Estigia eta Al-Kappot taldeekin antolatu zuen Fresek. Juanmaren kasuan, 90eko hamarkada erdian punk eta hardcore taldeak diskoteka eta areto handietan ikusteaz nazkatuta, Lasartera hardcore taldeak eramaten hasi zen. Hodei gazteagoa da eta Erantzun! taldearen bitartez ezagututako kanpoko taldeei harrera egiten hasi zen bigarren milurtekoaren hasieran. “Kanpoan guk kontzertuak egiteko laguntzen ziguten guzti haiei keinua egiteko modua da”.



Eskaintza ikaragarria

Astero programatzen dituzte kontzertuak, askotan aste barruan. Gainera, bertatik pasatako taldeek oso gogoan dituzte lekuok eta jendea. “Atzerrian izan garenean askotan aipatu digute gurean egonak direla. Nik uste erakutsi dugula, inoren zain egon gabe, gauzak norberak eginda, nahi dena lor daitekeela”, ondorioztatu du Hodeik. Juanmak, gainera, eszena honetako talde eta ikusle-partehartzaileen jarrera nabarmendu nahi du, kontzertua-berdin-mozkorraldia kontzeptuarekin erabat apurtzen duelako: “Antolatzen ditugun kontzertuak askotan aste barruan dira eta jendeak nahiko ondo erantzuten du. Asteburuko kontzertu-mozkorraldi loturatik aparte gaude gu; zaleek beste interes bat erakusten dute”.

Badira parrandazaleak, hala ere, baina oro har jende langilea da eta esan beharra dago lur-azpiko mugimendu honek disko eta kaseteak ekoitzi, banaketa-sarea osatu, fantzineak



Goitik behera, Infernöh (Suedia) eta Accidente (Madril); DSB (Japonia), Vitamin X (Herbehereak) Trintxerpeko Mogambon.

kaleratu, irrati libreak gidatu eta, jakina, auto-eraturako espazioetan lan egiten duela, guztiek musutruk arituta, jendeari oso prezio merkeetan bertako eta kanpoko talde interesgarri ugari ezagutzera emaneko.

Jatorriz DIY punkarekin eta, halabeharrez, hardcore eta crustarekin estu lotuta egon bada ere, salbuespenak ere badirela aitortu digute; eta era berean prestatzen duten



Juanma eta Hell Division taldearen jarraitzaile bat, Getariako gaztetxean.



24 Ideas (Bartzelona), Mogambon.



Bi Marks (AEB), Putzuzulon.

eskaintzan ez direla estilo jakin horietara bakarrik mugatzen. Fresek oso argi du Mogambora kontzertuak egitera etortzen den taldeetako askok, aukera izanez gero, baldintza komertzialagoetan aritzea hobestuko

lukeela: “Zenbait taldek haien zerbitzurako lanean ari garela uste dute; mainstream wanne zenbaitekin egin dugu topo. Eta, aldiz, estilo horietatik kanpo dauden talde batzuek DIY kontzeptua oso barneratuta dute. Hori da funtsean garrantzitsua”.

Juanmak gogoratu digunez bestelako eszenari ere bada Euskal Herrian: “Puskarra Records eta Barduliaren inguruan sortutako skinhead eta Oi! mugimenduan ere, zirkuitu komertzialetik kanpoko diskoetxe, banaketa, fanzine, irratsaio eta kontzertuak egiten dituzte”.

Lan egiteko DIY ereduari esker lortutakoaz harro daude hirurak. “Gurean hartzen ditugun musikarien esker ona ezin da diruz ordaindu”, laburbildu du Hodeik. Eta bada besterik ere: “Zarata jendearengana gerturatu eta horren atzean musika ona dagoela deskubritzen laguntzea lorpen ikaragarria da”.

Getarian hilean bizpahiru emanaldi antolatzen dituzte, Putzuzulon astean behin eta Mogambon “asterokoa bira mugatzen” saiatzen dira. Dagoenako ehunka talderen kontzertuak antolatu dituzte eta zerrenda amaiezina da. Aipagarrien artean, Discharge, Extreme Noise Terror, Poison Idea, Seein Red... Baina hiru lagunon ustez, garrantzitsua elkarlana, musika eta jende jatorra ezagutzea da. Gauza txiki hauek asetzen dute Fres. “Bizitzako lagun onenen arteko asko kontzertuak eginez ezagutu ditut”, diosku Hodeik. Juanma ere harro dago lortutakoaz, baina nonbait argia pizteko premia ikusten du: “Bertako hc/punk mugimendua sasoitsua bada ere, zahartuz doa, eta belaunaldi berri baten premia dugu”.

Atzerrikoentzat leku kuttuna

Nazioarteko banda ugari etorri ohi da ia astero, antolatzen diren kontzertuetara. Antzina-tik gertatzen dela dio Fresek: “Andoainen kontzertuak egiten hasi zirenetik izaten dugu atzerriko bisita ugari; izan ere, geografikoki oso ondo kokatuta gaude”. Eta hemengo gune autoeratuaren eskaintza ezohikoa ere aipatu digu Juanmak: “Espainian ez bezala, hemen halako gune ugari ditugu, inon baino gehiago. Eta hori, hein handi batean, gure aurreko belaunaldiak egindako lan eskergari zor diogu”.

Eta zer aurkitzen dute gurean talde horiek, bata besteari kontatu eta luzaroan hainbeste bisita izateko? AEBetatik etorritakoak zur eta lur gelditzen dira kontzertu autoeratuak egiteko dugun gaitasuna dela eta, han ez baitago halakorik, azaldu digu Hodeiek. Eta europarrak, berriz, gustuko dute hemengo giroa eta parranda-gogoia. Juanma harago doa; bere



Bartzelonako Las Otras taldea eta Erresuma Batuko Geriatric Unit taldea (behean). Biak, Zarauzko Putzuzulon.

ustean, atzerritarrei hemengoan adeitasunak eta diskoak erosteko grinak harritzen ditu, eta askok gure hizkuntza eta kulturari buruzko jakin-mina izan ohi dute.

Uzta emankorra Zarautzen

Urte asko pasa dira aipatutako estiloetako musika taldeak modu iraunkorrean etortzen hasi zirenetik, eta Getarian nahiz Trintxerpe inguruan ez bezala, Zarautzen Gipuzkoako (eta seguruenik Euskal Herri osoko) hardcore-crust talde multzo handiena dago. “Argi dago kontzertu asko ikusi eta taldeen joan-etorriak gertutik bizitzeak biziki errazten duela talde berriak ateratzea, baina Zarauzko taldeok jotzeko toki iraunkorrik ez zutenean hasi ginen lanean”, azaldu digu Hodeik. Halaber, horrek DIY ereduan sakontzera eraman zituen.

Zarata gustuko duten hainbat lagunek osatzen dute Zaratazarautz. Bertako musika taldeak batu eta kontzertuak antolatzen dituzte Putzuzulo Gaztetxean. Horrekin batera, izen bereko irratsaioa egiten dute asteartero Putzuzulon dagoen Arraio irratian –Internet bidez edonon entzun daiteke– eta webgunea ere badute.



Eta nolatan dago hainbeste talde itxura batean udatiarrena den herri honetan? Honatx Hodeien erantzuna: “Agian horrexegatik, herri aberats, udatiar eta pijo batean bizi izanda, beste herri askotan baino arrazoi gehiago ditugulako mugimendua sortu eta egoera aldatuko duten espazioak sortzeko. Gainera, dagoeneko herrian beste askori ere kutsatu diegu lan egiteko modu hau; eta hori oso garrantzitsua da”. ■



Sormen prozesua bide eta helburu

Claudia Dias dantzari portugaldarra Euskal Herrian dugu egunotan, Konposizioa Denbora Errealean deitzen den teknika erakustera heldu baita. Datorren irailaren 30etik urriaren 4ra bitarte, Bilboko Harrobia egoitzan izango da, arte eszenikoetan berritzailea den metodoari buruzko ikastaroa zuzentzen. 2014ko Bilbao Antzerki Dantza (BAD) jaialdian estreinatuko den piezaren prestaketa lanak dira.

| MYRIAM GARZIA |

MUSIKAN aspalditik ezagutzen da teknika, konposizio inprobisatua edota inprobisazio konposatua deitu izan zaio, eta egun, arte disziplina askotan, hala nola, arte plastikoetan edota eszenikoetan erabiltzen hasi dira. Dantza garaikideari dagokionez, Joao Fiadeiro koreografo eta dantzari portugaldarrak garatu du teknika, zeinaren arabera bat-batekosuna joko arau batzuen menpe jartzen den, unibertso, kontzientzia edota logika kolektiboari lehentasuna emaneko. Publikoaren heriotza iragarri dutenak ere badira —gaur ezagutzen dugun publikoarena, alegia—, espazio eszenikoan sortzen den unibertso kolektiboa, eszenaren alde bietara zabaltzen baita.

Fiadeiro konturatu zenez, sortzaileen arteko topaketetan da eraginkorra teknika, dantzarien eta ikuskizunean esku hartzen duten beste kolaboratzaileen arteko bileretan hasi zen erabiltzen. Egun, arte sorkuntzaren mugak gainditu ditu metodoak, eta beste eremu batzuetako talde lanetan ere erabiltzen da.

Claudia Dias (Lisboa, 1972) dantzaria, Fiadeiroren ikaslea eta ohiko kolaboratzailea dugu. Besteak beste, RE.AL-en ari da kolaboratzaile, João Fiadeirok gidatzen duen sorkuntza-estrategian interprete nagusi gisa, baita Konposizioa Denbora Errealean egitasmoaren garapenean, sistematizazioan eta zabalkundean.

2008an etorri zen estreinakoz Euskal Herrira, Bilboko La Fundicion aretoan “One woman show” dantza pieza aurkezttera, eta ordutik, bisita anitz egin du, dela dantza egitera, laborategiak zuzentzera edo sormen prozesuetan laguntzera.

“Gure asmoa, dantzariak teknika honetan trebatzea da”, diosku Matxalen de Pedrok,

Horman Poster taldeko dantzari eta Muelle 3 dantza eskolako kideak. “Egindako lanaren emaitza datorren urtean aurkeztuko dugu, 2014ko BAD jaialdian. Laborategi honetan eta datorren apirilean egingo den tailerrean parte hartuko duten dantzariak antzezlan honetako interpreteak izango dira. Baina horren aurretik, teknika honen gainean lan egin izana premia izango da”. Laborategia, arte eszenikoetan lan egiten duten hainbat elkartetan eta erakundek bultzatzen dute, hala nola Muelle 3, La Fundicion, Azala espazioa, Bilboeszena eta BAD jaialdiak.

Sormen prozesua talde osoaren esku

Arte eszenikoetan, bai antzerkian baita dantza garakidean ere, prozesua bera da artelana. Prozesuaren garrantzia erabatekoa da, hau da, pieza sortzeko orduan agertzen diren kontzeptuak zein ekintzak bilakatuko baitira antzezlan. Prozesua da bidea eta helburua. Arte eszenikoetan ematen den joera hori nabarmentzera dator, hain zuzen ere, KDE teknika. Berezitasuna zera du, sormen prozesu hori lan talde baten esku dagoela, kontziente indibidualetik taldearen kontzientzera egiten dela jauzia.

“Hainbat formazio tailer dago egun, baina guri interesatzen zaiguna sorkuntzarako formazioa da”, azaldu digu de Pedrok, “eta teknika hau oso aproposa da horretarako, zuzenean sortzen hasi eta ikuslariarekin harremanetan jartzen baitzaitu. Ikerketa metodoa da baina oinarriak estetikoak ere badira. Kolektibo horren eraginez, etikaren eremuan murgiltzen zara”.

Orainari buruzko hausnarketa proposatzen du KDE teknikak, orain politiko, sozial



eta kulturalaren gainean. Gure inguruan gertatzen ari denaz nork bere irakurketa du, baina badira hainbat kontu denok ulertzen ditugunak, eta horren ondorioz, batzen gaituen logika bat sortzen dute.

Sormenerako metodo honi esker, denbora errealean sortzea da funtsa, beti ere logika kolektiboa erabiliz, guztiok (bai dantzariak bai publikoak) uler dezaketen logika edota haria. “Irudi batetik bigarren batera pasatzean, inor ez galtzea da helburua” laburbildu digu de Pedrok.

Inprobisazioak teknika honetan izan dezakeen garrantziaz galdetu diogu: “Bai eta ez. Pieza izan daiteke bat-batekoa baina baita erabat konposatutakoa ere. Konposizio mota hau oso barneratuta izan behar duzu zuzenean inprobisatzeko. Irudiz osatuta dauden piezak

Claudia Dias
portugaldarraren
Konposizioa Denbora
Errealean tailerra,
Azalan (Laseras,
Araba).

dira, eta irudi batetik beste batera pasatzerakoan, logika kolektibo horri fideltasuna gorde behar diozu” dio dantzariak. “Eremu ezezagunean murgiltzen zara baina behin hodian sartuz gero, ezin duzu irten bukatu arte. Sartzen bazara norabide batean, logika jarraitzen duen punturaino jarraitu behar duzu, eta norabide hori bukatutzat jotzen duzunean beste norabide edota erabaki bat hartu behar duzu”.

Talde pentsamendua sortzen du KDE teknikak, denok uler dezakegun unibertso kolektiboa. Sormen prozesuotan garrantzitsua da bulego lana. Aldez aurretik kontzeptuak garatzen dira, hausnartu, erabaki, gero etorriko dira mugimendua eta ekintza. Logika saihestezin honek bat baino gehiago harrituko du. ■



CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com



- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia
☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00



Karibe Kantauri kantari
La jodedera

Gaztelupeko Hotsak, 2013

Kantauri itsasoko Karibetik kantari

BIZKAIKO GOLKOKO ur hotzek Karibe itsasoko ur beroen laztana jaso dute, eta itsasaldiaren joan-etorrien antzera, hango eta hemengo kantak “Karibe Kantauri kantari” zurrumbilo honetan jaurti dira. Kontinenteak banatzen dituen itsaso zabalak elkarrengandik hain urrun dauden bi herrialde gerturatzten ditu epel utziko ez zaituen disko honi esker.

Itsaso urrun batean dantzatzaren diren doinuak euskal kostaldean abesten ditugun kantuekin nahastu dituzte La Jodedera taldekoek, eta modu honetan, euskal herrietako edozein txokotan ron txupituak edo sagardoa edanez, saltsa dantzan edo dantza saltzan gabiltzala ere, Habana zaharreko karriketan entzungo genituzkeen kantak ekarri dituzte gurera. Erritmo beroez goxo helduta leun mugitzen direnak itsasoaren beste muturrean ugariagoak diren arren, Euskal Herrian barra ondolan geratzen direnen aldakak mugiarazteko esfortzua egitera gonbidatzen gaituzte, hirugarren garagardoren ondoren kulunka txiki bat egiten ausartzera, besterik ez bada ere. Eta dantzatzeko imintziorik egiten ez duen horietakoa bazara, Euskal Herriko kantu ezagunen bertsio kubatarrekin edo kubatar kantu tradizionalen euskal moldaketekin barrenak husteko aukera ere hortxe duzu.

Ezagunak egingo zaizkizu, adibidez, Atahualpa Yupanquik kantatzen zuen *Los ojos de mi carreta* edota milaka bider abestu ditugun *Joxe Migelen batela* eta *Zergatik negar egin* abestiak, azken honen oinarritzko melodia erabat aldatuta entzungo duzun arren.

“Topatuta” gaudela dio diskoaren lehen kantak, Kuba eta Euskal Herria topatuta, elkartuta alegia. Batzen gaituzten hainbat alderdiri keinu egiten dieten kantuz beterik dago diskoa eta abestien hitzak, umorez eta doinu sarkastikoz bustirik, gai sozialetan oinarritzen dira batez ere: egungo emakumearen rola tradizioekiko, botere-indarkeria, agintarien ustelkeria, kapitalismoaren gehiegikeria...

Dantzarriak dira diskoan entzun daitezkeen runba, bolero, salsa, guaratxa, danzon eta gisa hone-



tako erritmo beroak. Aberatsak bertakoek abesteko eta jotzeko duten jarrera askea ere, oinarri erritmi-koari eutsiz, inprobisatzeko joera hori lekuko. Taldeko kide diren Mandi Cienfuegos (perkusioa eta ahotsa) eta Oscar La Habana (treseroa) kubatarrek bat egiten dute honetan eta Jon Txorromorro (gitarra, ahotsa eta txotixea) eta Jon Oiartzun (baxua) euskaldunek ederki borobiltzen dute laukotea. 2009an sortu zen taldeak, zuzeneko emanaldiak girotzeko beharrezkoa den *ya tú sabes* horrekin, jendea bereganatu eta erakartzen du.

Garai zail hauetan musikari izatea abentura handia suertatzen dela zioen Mikel Azpiroz musikariak, Donostiako jazzaldia zela-eta egin zitzaion elkarriketa batean. Arrazoirik ez zaio falta. Musikari direnentzat eta ez diren askorentzat ere bizitza bera “abentura” zaila bilakatzen ari baita. Eguneroko ardurak eta kezkak errazago eramaten lagunduko duen heldulekua izan daiteke musika, dimentsio txiki batean bada ere, pentsamenduak arintzeko gaitasun magiko hori baduelako.

Zure baimenarekin, eguneroko dosia hartzera noa, oraingoan mojito eta guzti. ■



Olatz Korta



Herritarra
eta partaidetza
politikoa

Beharrezkoa da herri-
partaidetza zuzena udal
esparruan?

Partaidetza zuzena

ri buruzko
jardunaldiak Donostian

Miramar Jauregian, urriaren 4an eta 5ean



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Izen emateko eta informazio gehiagorako:
www.donostia.org/partaidetzazuzena

MOZTAILEA JAURTIZ		BAXERA GARBITZEA LISTUA		DUDARIK GABE	 DANI BLANCO	BURUTIK JOTA APUR BAT HOTZA		URRI PERTSONAIA- REN ABIZENA		AZPANTARRA KONTINEN- TEARI DAGOKIONA	
ZEURI ARGI							FRUITU BATZUEN AZAL GOGOR HURA				
				JUNTA- GAILUA MINERAL KOLOREDUNA			FRUITU MOTA LEHORTU				
ENERGIA BERAK		PERTSONAIA- REN IZENA RIGAKO BIZTANLE						DENBORA, BETA BARREGARRI			
				... OGIA, BI- HARKO GOSIA KRUSTAZEO TXIKIA					INDIOA GORPUTZARI DARION ISURKARI		
TXORIA	ATOMO KARGATUA EMAKUME IZENA				BUTIN ZURIA SENDOA, FINKOA						
							NAFARROA- KO MENDIA ZAPATA				EUROPAKO MONETA
6. MUSIKA NOTA ÜRRE KOLOREKO ALEAZIO		PAPER LODI ARRAS, ZEHAHO						NIRE XAKE JOKOAREN PUNTUAK			
				HASERRETU, MUZINDU IRIDIOA							
AKATS BEROTZERA BEHARTU					BELDURTI AZKENA						
							ETXEKO HEGAZTI				

[illegible]



Errimak Oinetan

Dantza berriak, bertsoei jarriak

BERTSOLARITZA ETA DANTZA uztartzen dituen ikuskizuna sortu du Haatik dantza konpainiak: *Errimak Oinetan*. Bost gorputzen mugimenduak hitzekin ureztatuz loratu dute zuhaitza eta urtebete daramaten arren, gogotsu dabilta.

Dantza bidez transmititzeko zailtasunak ezabatu ditu Haatik dantza konpainiak *Errimak Oinetan* lanarekin. Formatu eta sormen aldetik erabat bestelakoa izateaz gain, sentsazioak, bizipenak eta istorioak kontatzeko baliabidetzat hartzen dute. Bertsolarien hitzen indarrak mugimendua erazago transmititzea lortu du dantzarien ustez, eta haiek ere komunikatzaile hobeak bihurtu dira. Horrela bada, bertsoak dantzatu eta dantzak abesten dituzte.

Alpargatak urratuta iritsi ziren Aiert Beobide, Garazi Lekuona, Gotzon Poza, Maitane Mujika eta Onintza Odriozola Haatik dantza konpainia eratzeraz. Sustraiak euskal dantza tradizionalen izateak esperientzia eta ziurtasuna eman die oholta gainerako. Hala ere, erosoago eta askeago sentitzen dira alpargatak erantzita, beste hamaika gauza adierazi baitezakete. Tradizionala isildu eta garaikidea piztea baino, bion arteko zubia eraiki dutela esan daiteke. Hala ere, esan nahi dena ulertaraztea hain erraza ez dela aitortu du Beobidek. Bertsoekin uztartzearen ideia, hain zuzen, zailtasun hori apurtzetik sortu zen.

Finean, bertso saio bat ikusten du *Errimak Oinetan* ikustera doanak.

Musika eta ahotsak off-ean eta mugimenduak zuzenean. Hortaz, dantzariez gain bertsolariak ere badira. Sustrai Colina bertsolari lapurtarrak rolean sartzen lagundu die: nola esertzen diren, nola erreakzionatzen duten, noiz dauden urduriago... Bakoitzak bere pertsonalitatea eratu behar dutela aholkatu die bestalde. Gotzon Pozaren ustean, hori izan da lanik zailena, baina, era berean, politena, bakoitzak bere bertsolari nortasuna sortzea.

Lanketa berezia izan da Aiert Beobide dantzari eta zuzendarirentzat, dantzatzen ari ez direnean ere eszenatokian daudelako, lehen ez bezala. Orain arte egin dituzten ikuskarietan osagarriek betetzen zituzten dantzak: objektuek, argiek, jantzi bereziek, makillajeak, musikak... “Estetikoki gutxiago” erakartzen badu ere, mezuari indar handiagoa ematea lortu dute: “Berdin jantzita azaltzen gara triste eta alai gaudenean, garrantzia bikoitza eman behar diogu, beraz, esateari”. Bi elementu bereziri dantza bana eskaintzen diete; aulkiei eta ur botilari. Antzerki eta imitazio horiek umorez zipriztindu dute publikoa, hasieran zaila iruditu arren. Aitortu dute, gainera, urduritasunaren aurreko tresnatzat erabili dituztela aipatutako elementuak.

Ezkutuan bizi izaten dituztenak ere azaldu dituzte, saio osteko parranda, adibidez. Horrela amaitzen dute ikuskaria, ospakizunarekin, hamaika modutara, dantzan.

Nahi den neurri eta doinu

Sentimenduez mintzatzen dira, beraienak ere badituztela ahaztu gabe. Bakoitzaren erronka hori dela diote, edozein eszenatokitan “benetan” hunkituta sentitzea. Landutako gaietan pasio handiagoa jartzen dio norberak gertuago sentitzen duen horri. Egoerak baldintzatzen ditu, beraz, mugimenduak gehiago edo gutxiago sentitzera. Publikoak zeresan handia du, erreakzio bat bilatzen delako gehienetan.

Lekuaren eta unearen eraginaz gain, norberaren egunerokoak dantza aldatzera behartzen ditu batzuetan. Horregatik, askatasun osoa dauka norberak dantzari egin nahi dizkion aldaketak egiteko, beti ere taldean onartzen bada. Tristura, alaitasuna, itxaropena, eta ilusioa tarteko, amatasuna, krisia, topikoak, (in)justizia eta sexualitatea gaiak landu dituzte, besteak beste.

Dantzatzen dituzten bertsoen hitzak Sustrai Colinak jarri dizkie. Bestalde, Mikel Urdangarinen eta Katamaloren abestiak, Miren Amuriza eta Maddalen Arzallusen bertsoak eta beste ere jaso dute.

Euskal Herriko txoko guztietara heldu nahiko luke Haatik taldeak. Euskaraz ulertzen ez duen jendeak ere saioa ikusi duela kontatu du Beobidek, “eta kostatu bazaie ere, mezua ulertu eta gozatu dute”. ■

**Ainhua
Mariezkurrena**



Skypek hamar urte bete ditu

2003KO ABUZTUAN Niklas Zennstrom suediarra eta Janus Fris daniarra orde-nagailutik ordena-gailura elkarriket-tak transmititzea lortu zuten. Horre-la jaio zen Skype. Une honetan 300



milioi pertsonak erabiltzen du egunero zerbitzu hori, eta guztira 2.000 milioi minutu, 38 mende, transmititzen dira eguneroko elkarriketetan.

Azken hamar urteotan, Skype enpresa eskuz esku ibili da; 2005. urtean eBayk 2.600 milioi dolar ordaindu zuen bereganatzeko, eta 2011n Microsoftek erosi zuen, 8.500 milioi dolarren truke. Aurten, ekaina bitartean 848 milioi dolarreko irabaziak eman ditu, aurreko urtekoaren bikoitza. Skype hitza bera ingelesezko hiztegian sartu dute, bere garaian Google eta Xerox bezala.

Enpresa teknologikoak agertu eta desagertu egiten diren garai honetan Skypek egonkortzea lortu du. Eskaintzen duen zerbitzuak, doakoa izateaz gain, urrutikoen arteko loturak errazten dituenaz, lerro haueetatik ere zorianak eman nahi dizkiogu. ■



Fukushima, gero eta deskontrolatuagoa



UDA GARAI ONA IZATEN DA derrigor eman behar diren berriak, batez ere berri txarrak, gizarteratzeko, oihartzun handirik gabe igarotzen baitira.

Uztailean eta abuztuan albistea izan da Fukushiman ur erradioaktiboa isurtzen ari dela, ez dakite nondik eta zenbat. Irailaren 1ean, ezin izan dute isildu bertan gertatzen ari den erradioaktibitatearen hazkundera.

Bitartean umeen leuzemia gorantz, arrantzaleek arrantza ezin eginda, hainbat animaliarengan mutazioak... Deskontrola, gero eta nabariagoa.

Hala ere, jendea bizi da Fukushimako prefekturan eta agintariek hori azpimarratzen dute normaltasun seinale gisa. Esaten ez dena da han bizi diren gehienak baliabide ekonomiko eskasekoak direla, gainerakoek eremu seguruagoetara emigratu baitute. ■



Balea urdinek beren burua belzten dute

Queretaroko (Mexiko) Unibertsitateko zientzialari talde batek egindako ikerketen arabera, balea urdinak eguzkiaren izpi ultramoreetatik babesteko balio dieten geneak ekoizteko gai dira. Horri esker, erredura gutxiago jasaten dute beste balea espezie batzuek baino.

ttiki.com/54301
(Gaztelaniaz)

Robotak garunaren kirurgiarako

Operazio kirurgiko guztiak ez dira berdinak. Batzuetan, milimetro bateko desbideratzeak ondorio larriak eragin ditzake, batez ere garunean gertatzen denean. Hori dela-eta, ebakuntza konplexuetan gero eta gehiago erabiltzen dira ordenagailuz gidatutako robotak, hatzen orde.

ttiki.com/54302
(Gaztelaniaz)

Yosemiten drone militarrek erabiltzen ari dira

80.000 hektarea baino gehiago erre dira Yosemite parkean eta Kaliforniako Guardia Nazionala droneak –gidaririk gabeko abioiak– erabiltzen ari da suaren eboluzioa ikuskatzeko. Urria bitartean itzali ezin izango den suteko irudiak hartzen ditu droneak, guk dakigula, helburu militarra ez duen lehenetariko lanean.

ttiki.com/54303
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak
 multimedia
 aholkularitza
 edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Alaba bakarra

ALABA BAKARRA eta gaztaina bakarra, galdu egiten dira. Hala dio esaerak. Hortik ote dator ezkontza eskaerak gaztainapean egitearen ohitura? Izan ere gaztaina, *Castanea sativa*, zer ez da izan! Etxea izan dugu gaztaina: eraikuntza, altzari, busti-lehorrerako baldo, lepotar eta zare, meazuloko zurkaitz, gaztandegiko zumitz, larruak ondu eta apaintzeko tanino, sendabiderako hosto, beranduko eztitarako eta hiletetako argizaritarako erleentzako lore, karreto barriketarako upa ohol eta uztai, zeta beltzaren tindu... Ikazkintzarako txodor plaketan eta sutondoetan ez du izan, ordea, fama onik. Fama onik, suaren erregai gisa. Aldiz, jendearen erregai gisa sekulako ospe ona izan du. Elikagai garrantzitsua izan da gure aurreko belaunaldi ugariarentzat. Juan Ignazio Iztuetak idatzi eta 1847an argitaratutako *Gipuzkoako probintziaren kondaira* liburuak honela dio: “Gipuzkoan badira etxeak, asko ta asko alere, beren mugapean bildutako gaztainatik sei edo zazpi illabeteko goiz arratsetan naierara bazkaturik, txiki arki guztia abereai jan-erazo, eta gañera

irurogei anega ta geiago azokean saltzen dituztenak. Probinzia onetako mugape guztia da gaztaina tokia”. Salvador Zapirain Ezeiza *Ataño*-k berriz, bere aitaren biografia den *Txantxangorri kantaria*-n hau dio: “Ari ere min ematen zio, biotz oneko gure inñude izan diran gaztain zar oek galtzen ikusi bearrak. Bai, gure inñudea esan dit; ongi egia alare. Ia lau illabeteko, gure mantenuaren erdia, orain arte, gaztaina izan dek. Amaika danbolinkada erreak gaituk. Amaika txarrokada sagardo edanak, gaztain erreak janaz. Inñungo ipui gozo ta izukor entzunak gaituk gaztain errean taupako artean. Amaika bertso zar ta berri kantatuak gaituk gaztain errean aurrean.”

Elikagai honekiko mendekotasun hori ederki adierazten du galdua dugun gaztainaren jakintza izugarriak. Eredendu edo txertatzeko ohitura, mentu-oin baxakei txertatzeko ehunka aldaerak. Gaztainondoak aldatzeko herri araudiak. Gaztainadiak zaintzeko zorroztasuna. Moildu, bildu, jaso eta iraunarazteko teknika aurreratuak. Jateko era anitzak. Eta hori dena adieraz-

teko hizkuntzaren berebiziko oparotasuna, alimalekoa.

Hainbeste hilabetetan gaztainak iraunarazteko teknikei soilik helduko diot. Gaztaina uda amaieran eta udazken osoan zehar bildu eta negu osoan izateko metatu egiten zen. Ez lehortzeko morkotsean bertan, aletu gabe, irakurri gabe. Bai, morkotsak, artaburuak bezala irakurri egiten dira, aletu alegia. Meta edo pila horiek etxe ondora ekarrita edo gaztainadian bertan egiten ziren hesola eta zarbaz edo harriz egindako hesia bete eta garoz eta arbataz estaliz. Basoko eraikuntza horiek, gehienetan borobilak eta hoge metro kubo artekoak ere badirenak, izen ugari dute: gaztandegi, gaztantea, zilu, silo, nido, ezpile (espille), iskindia, kirikinusia, gaztainusia... Etxe barruan, berriz, gaztainol deituri-ko arasa edo apaletan ontzen ziren gaztainak. Baita ganbaran zabalduta ere, ostiralero pila irauli eta gatz pixka bat emanez.

Baten batek gaztainari heldu eta jakintza eskerga hori behingoz jasoko al du! ■



JAKOBA ERREKONDO



Uretara makurtu

Oria errioren ur gazi-gezetan nabil. Amatoria deitzen dio lagun batek. Gilarik gabeko alan, itsasoko barratik abiatu eta marea gora bizienetako ur kargak ahalbidetzen duen goreneraino igo eta itsasoraino jaitsi; kosta behar zaizu honelako ikuskizunik topatzea. Urari gorazarre landareak, paisaia makurtu egiten da. Ur geza beheantze, gazia gorantz. Goi-goieneraino, hostaia ukitzen diona gogokoena, gazia. Bizia. Gaxia, bixia. Argazkiko landare koreografia: lezka (*Phragmites australis*), rainutria (*Fallopia japonica*) eta milazka (*Tamarix gallica*). Bata hegokoa edo australa, japoniarra bestea eta frantsesa azkena. Gure erriotan nagusi! ■

Tronua berreskuratzeko dieta



Antso I.a Leongoa (c. 935-966), XII. mendeko miniatura baten arabera. Marraskia erregea hil eta bi mende geroago eginga da. Beraz, egileak ez zuen sekula Leongo erregea ikusi. Haren antza izatekotan, azken urteetako izango du, 959 baino lehen Antsok 220 kilo inguruko pisua baitzuen.

LEONGO ERRESUMA, 956. Ordoño II.a erregea hil zen, eta haren anaia eta aulkari politikoa nagusiak, Antso I.ak, eskuratu zuen tronua. Antso Gartzes eta Toda Iruñeko errege-erreginen biloba zen, Leongo Ramiro II.a eta Urraca Sanchez errege-erreginen semea, eta *Gizena* ezizena ez zioten alferrik ipini. Diotenez, 220 kilo inguru pisatzen zuen, egunean zazpi otordu egiten omen zituen, eta gutxienez hamazazpi plater bete janari irensten.

Muturreko loditasunak bere zereginak betetzen uzten ez ziola argudiatuta, Leongo noble gehienek errege gaztearen aurkako jarrera hartu zuten. Gaztelako nobleziaren laguntzaz eta Fernan Gonzalez kondea buru zutela, armada indartsua bildu eta errege gizena tronutik egotzi zuten, koroa jantzi eta bi urtera. Haren ordeiz Ordoño IV.a izendatu zuten.

Erbestealdi behartua hasi eta berehala, errege gizenak amonarengana jo zuen, Iruñeko Todarengana. Orduan, amonak hitzarmena egin zuen Abderraman III.a kalifarekin —kalifa ere Todaren senitartekoa zen, iloba, hain zuzen—; Antso Kordobara joango zen argaltzeko terapia egitera, aginterako ezinbestekoa zuen arintasuna lortzera, eta ordainetan, kalifak Duero ibai aldeko hainbat lurralde bereganatuko zituen.

Hasday ibn Saprut izeneko Kordobako gorteko mediku judutar batek hartu zuen Antsoren dietaren ardura, eta errutina gogor baina eraginkorra ezarri zion: 40 egunetan infusioak besterik ez zuen dastatu Antsok. Egutero, egunsentia baino lehen, Kordobako mendilerroko muino batera igo behar zuen oinutsik, gailurraren inguruan hainbat belar jaso eta, jauregira itzuli ondoren, bildutako belarrak sabelalde mardulean igurtzi behar zituen.

Ziurrenik, dokumentuetan jasotako 40 eguneko dieta ez zen nahikoa izango eta Leongo errege ohiak ahalleginari jarraipena eman beharko zion. Baina, kontuak kontu, Antso I.a 90 kiloren bueltan zebilen Leongo erresumara itzultzea erabaki zuten. 960. urtean, soldadu iruindarrez eta musulmanez osatutako ejertzitza bildu eta erraz berreskuratu zuen koroa.

Musulmanekin hitzartutakoa berehala ahaztu zuen erregeak, eta aliatu ohiak Ordoño IV.aren alde arituko ziren handik aurrera. Badirudi, ordeia, dietari leial eutsi ziola. Azkenik, sagar bat jan ondoren hil zen 966an; *Sampiroren Kronikaren* arabera, Gonzalo Sanchez konde matxinoak sagar pozoi-tua eman zion errege argalduari. ■



Arrastoak Zergatik da gorria kardinalen jantzia?

PAULO II.A AITA SANTUAK (1414-1471) handik aurrera kardinalak gorri jantziko zirela erabaki zuen 1464an. Pietro Barbo —hori zuen aitasantutzara iritsi aurreko izena—, veneziarra izanik, jaioterriko jauregien hotsandira eta luxura ohituta zegoen. Kardinalak benetan Elizaren Printzeak zirela erakutsi behar zutela uste zuen, ekintzen nahiz jantzien bidez. Paulo II.aren erabakia hurrengo urtean, 1465ean, jarri zen indarrean.

1555ean Martzelo II.a Aita Santuak fribolitatea kendu nahi izan zion aurreko mendean Paulo II.ak hartutako erabakiari. Kardinalen janzkera ez zuen aldatu, baina gorria aukeratu izanari azalpen koherenteago bat eman nahi izan zion, moral kristautik hurbilagokoa. Pontifizeak azaldu zuenez, fedea babesteko beren odola isurtzeko prest zeuden kardinalak eta horregatik haien jantziek odolaren kolorekoak izan behar zuten. ■



CORDON PRESS

Harrobiak erreferente nagusia galdu du

Fernando Alonso Formula1-eko pilotu espainiarrak Euskaltel-Euskadiren UCI World Tour lizentzia erosteko aurre-akordioa sinatu du. Abuztuaren 20an bere desagerpena ofizialki jakinarazi zuen taldea salbu dagoenik ezin esan daiteke, txirrindularitzari, oro har, mesede egin diezaiokeen arren.

| JON TORNER ZABALA |



1994. urtean sortu zen Euskadi taldea. 1998an Euskaltel-Euskadi izena hartu zuen, telekomunikazio konpainiaren babesletza medio. Euskal txirrindulari eta zaleek erreferentzia oso garrantzitsua galdu dute. Argazkian, Mikel Nieve.

“JARRAIPENA, TRANTSIZIOA eta internazionalizazioa” dira proiektu berriaren ardatzak, Alonsok bere webgunean sareratutako komunikatuan dioenez: “Talde berriak errespetatu egingo ditu 2014 eta 2015erako Euskaltel-Euskadirekin akordioak loturik zeuzkaten txirrindularien kontratuak.

Jarraipena ematea desio dugu, eta apurka-apurka handitzen joatea, tropeleko gizonik onenak fitxatuz, nazioarteko proiektu bateranzko trantsizio moderatua egingez. Epe ertain-luzerako helburua da mundu mailan erreferente izango den taldea osatzea”.

Alegia, 2015era arte bederen, Euskaltel-Euskadiren egiturak nolabaiteko jarraipena izango du, taldeari izen berria jarri eta egoitza nagusia Asturiasen izango duen arren. Igor Gonzalez de Galdeanok jarraituko du kirol zuzendari moduan, Samuel Sanchez izango da taldeko liderra



Fernando Alonsok Euskaltelen lizentzia erosi izana positiboki baloratu du ziklismoaren munduak, merkatua zabaltzen lagunduko duelakoan.

—ezustean Alberto Contador fitxatzen ez badute, zurrumurru batzuek dioten moduan— eta aurten laranja jantzita ikusi ditugun beste hainbat ziklista ere Alonsok bultzatutako proiektuan izango dira, baita gainerako profesionalak ere: masajistak, mekanikariak... Epe motzera begirata, beraz, euskal txirrindularientzat albiste ona da, bai behintzat Euskaltekin kontratua indarrean daukaten profesionalentzat.

Datorren urterako hamalau ziklistak daukate kontratua indarrean, Mikel Nievek, Igor Antonek, Gorka Izagirrek eta Mikel Landak tartean.

Zenbaitzuk lortuak zituzten datorren denboraldirako aurre-akordioak beste ekipo batzuekin, eta ikusteke dago Fernando Alonsok babestutako proiektuan jarraituko duten ala ez. Anton baikor agertu da: “Hamalauok talde berri horretan egongo garela uste dut”.

2015etik aurrerako panorama, ordea, ilunago ageri da, “jarraipenaren” ondoren baitatoz “trantsizioa” lehenik eta “internazionalizazioa” ondoren. “Epe ertain-luzera-begira beste eredu batean oinarritutako taldea osatu nahi dute”, onartu du Gonzalez de Galdeanok berak. Ezin-

bestean, jada metamorfosi fasean murgilduta zegoen egitura —eta filosofia— errotik aldatzea eragingo du horrek.

Alonsoren esku-hartzeak ez du Euskaltel-Euskadiren proiektua salbatuko, ez behintzat ia gaur arte uler-tu dugun moduan, nahiz eta txirrindularitzari, oho har, mesede egingo dion, Fernando Alonso “markak” merkatuan zor dezakeen interesagatik.

Filosofia baten amaiera

Bi hamarkada betetzera zioanean desagertu da Euskaltel-Euskadi. Institutuzioek laguntzak kendu ostean —krisia aitzaki—, ez dute bigarren babesle pribaturik aurkitzerik izan.

Euskaltelek urtero 3,5 milioi euroko ekarpena egiten zion txirrindulari taldeari. Aurtengo denboraldian, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazioek laguntzak kendu ostean, telekomunikazio konpainiak 7 milioi euroko ekarpena egin behar izan du. “Proiektua ez zen bideragarria”, adierazi dute taldeko arduradunek.

Lau urterako plana sei hilabeteen agortu da

“Taldearen kudeaketa ez da ona izan”, adierazi du Roberto Laisekak, 1994tik 2006ra bitartean Euskaltel-Euskadi taldean aritu zen ziklistak.

Erreakzioak

Samuel Sanchez, Euskaltel-Euskadiko txirrindularia: “Fernando Alonsoren proiektuak pixkana itxura hartzea da garrantzitsua. Positiboa da ziklismoarentzat, Euskaltelentzat bereziki. Oihartzun hain handiko pertsona bat txirrindularitzara heltzea ona da, kirol honen alde apustu egin dezaketen enpresa berriak erakarri ditzakeelako”. (*El Diario Vasco*, 2013-09-04)

Igor Anton, Euskaltel-Euskadiko txirrindularia: “Gu ere ezustean hartu gaitu albiste on honek; ez dakigu gauza askorik. Kontratua daukagun hamalau txirrindulariak eta beste langile batzuk talde berri horretan egongo garela uste dut. Hala espero dugu, behintzat”. (*Berria*, 2013-09-04)

Igor Gonzalez de Galdeano, Euskaltel-Euskadiko kirol-zuzendaria: “Argi dago guztia aldatuko dela, epe ertain-luzera beste eredu batean oinarritutako taldea

osatu nahi dutelako. Eredu arrakastatsua eraiki nahi baduzu, Sky, BMC edo Astana bezala, ziklista oso onak fitxatu behar dituzu, eta azpiegitura, antolaketa eta proiektu sendoa izan”. (*Biciciclismo.com*, 2013-09-03)

Luis Garcia Abad, Fernando Alonsoren managerra: “Hazten lagunduko gaituen oro errespetatzen saiatuko gara. Helburu nagusia epe luzera taldearen biziraupena bermatzea da. Proiektuak errentagarria izan behar du hori lortzeko. Ez dut uste Formula1-eko babesleak txirrindularitzan sartuko direnik. Aparteko bi merkatu dira”. (*Radio Euskadi*, 2013-09-03)

Miguel Madariaga, Euskadi Fundazioko presidentea: “Albisteak ez da ona euskal txirrindularitzarentzat, taldeko arduradun berriak komeni zaienarekin geratuko direlako apurka-apurka. Dena den, oso pozik nago hainbat ziklista eta laguntzailearen lanpostuak salbatu direlako. Talde berriak ez du orain arteko babesas jasoko Pirinioetan”. (*ETB2*, 2013-09-03)

Euskaltelek txirrindulari atzerritarak fitxatu ditu aurten, lau urterako UCI World Tour (UWT) lizentzia eskuratu ahal izateko. Laburrean azaltzeko: UWT mailan lehiatu ahal izateko, txirrindulariek lortutako emaitzen arabera gutxieneko puntu kopurua izan behar dute taldeek, eta puntu horiek atzerriko txirrindulariei esker lortu ditu Euskadik, fitxaketa berriek emaitza penagarria eman duten arren: Tarik Chaoufi marokoarrari kontratua eten diote egokitzapen faltagatik, Aleksandr Serebriakov errusiarrak posiboa eman zuen EPOrekin, André Schulze alemaniarrek lasterketa bakarra amaitu du...

Aldiz, nahikoa punturik ez zuelako taldetik bota zuten Amets Txurruka oso txukun dabil Caja Rural taldean, eta horrek are lotsagarriago utzi ditu Euskaltel Euskadiko ardura-dunak –Ivan Velasco ere arrazoi beragatik kanporatu zuten–. Filosofia aldaketak ez dio batere mesederik egin taldeari. Han aritutako hainbat txirrindularik zuzendarien jarrera gogor kritikatu zuten, eta errepideak

laranja kolorez zipriztindu dituzten zaleak geroz eta urrunago ditu. Gertatutakoaren pisu guztia egungo zuzendaritzaren bizkar gainean uztea, dena den, arinegi jokatzea litzateke agian.

Harrigarriena zera da: Taldeak lau urterako apustu sendoa egin zuela, eta proiektua sei hilabetea amaitu dela. “Taldek arduradunek bazeki-

Instituzioen laguntzarik gabe, Euskaltelek ezin izan dio babesletzari bakarrik eutsi

ten instituzioek euren ekarpena kenduko zutela eta hala ere filosofia aldaketa eman zen”, kritikatu du Laieskak.

Biciciclismo webgunean aurkitu dugu azalpen gehiago: “2012an, guztia arrosa kolorekoa zenean, Euskaltelek taldearen kudeaketa Basque Cycling Pro Team sozietatearekin hartu –Miguel Madariaga buru duen

Euskadi Fundazioaren lekuan– eta lau urterako proiektu estrategikoa aurkeztu zutenean, 36 milioi euroko aurrekontuaz hitz egin zen. Aldiz, pasa den martxorako jakina zen arrazoi ekonomikoak medio taldearen jarraipena arriskuan zegoela. Inork ez du egoera hau ulertzen, ezta Igor Gonzalez de Galdeano managerrak ere”.

Ez da zalantzarik Euskaltel-Euskadik hutsune handia lagako duela, bai tropelean, baita errepide bazterrean ere. Afizionatu mailako txirrindularitzak ez ditu garai gozoak bizi. Lasterketa ugari desagertu da eta beste zenbait arriskuan daude. Euskal Herriko ziklista gazteek aukera gutxiago izango dute orain goi mailara salto egiteko. Fernando Alonsok babestutako egitasmoaren inguruko galdera ugari daude oraindik erantzuteke. Espainiako Itzulia amaitzean ezagutuko dugu gauza gehiago. ■

argia.com *Slump doktoaren zaintiratua* blogean, gaiari buruzko azalpen, iritzi eta loturak.



Kalean da irail-urriko



aizu!

- **Aiaraldea.com**, eskualdearen lekuko
- **Sormena eta natura Ur Maran**
- **Mangamore, manga eta animea**
- **Nagore Osoro arin-arin**
- **Labrit Tours, Iruñea ofizialek harago**

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org

Kromoaren ondorioz hildako langilearen enpresa zigortu du Donostiako epaitegiak

40 urtez Astigarragako zinkeztatze fabrika batean aritu zen langileari 2011n atzeman zioten minbizia eta urtebetera hil zen. Epaia dio enpresan ez zutela aireztapen egokirik eta maskararik erabiltzen.

| URKO APAOLAZA AVILA |

BIZITZA OSOA KROMOAREKIN eta zinkarekin lanean jardun ondoren, 75 urteko Astigarragako langile bati biriketako minbizia atzeman zioten jubilatutako ondoren, 2012ko otsailean hil zen. *El País* egunkariak kaleratu duenez, Donostiako lan-arloko epaitegiak Zincados y Derivados enpresa jo du heriotzaren arduradun eta senideak diruz indemnizatzen zigortu du.

Kromoa industrian asko erabiltzen den elementu kimikoa da, batez ere metalen tratamendu eta babeserako, baina baita zementua egiteko ere. Oxidazio egoera handiengan dagoenean



Kromo hexavalentea (Cr-VI) oso kutsakorra da eta minbizia sor dezake. Zementu fabriketako langileen artean, aldiz, ohikoa da dermatitis larriak sortzea.

—kromo hexavalentea— oso kutsakorra eta kantzerigenoa izan daiteke. Donostiako epaitegiak dio 1961etik enpresak derrigortuta daudela babe-

serako neurriak hartzen halako elementuekin lan egitean, eta 1978tik laneko gaixotasun kontsideratzen direla zinka eta kromoa manipulatzetik eratorritakoak. Jada 1890ean, Glasgowko Unibertsitateak kaleratutako artikulu batean kromo hexavalenteak langileen artean sortutako kartzinoma deskribatzen ziren.

Dena den, laneko beste gaixotasun batzuekin ez bezala, badirudi ezezagutza handia dagoela oraindik kromoaren

inguruan. Astigarragako langile ohia gaixotu zenean, Osakidetza medikuek ez zuten asmatu minbi-ziaren jatorria zein izan zitekeen eta CCOO sindikatuak eman zion Osalari kromoaren berri.

CCOOk duela bi urte ohartarazi zuen, amiantoarekin gertatu den gisan, kromoarekin ere gaixotasun hilgarriak ugaltu litezkeela hurrengo urteetan. Euskal Herrian ohikoa da nikela eta kromoa bezalako produktuen erabilera, lurzoruen tratamendurako lantegietan eta kromoztaketa nahiz galbanizatu tailerretan; halako hamarnaka enpresa daude. Sindikatuaren esanetan ez da prebentziorako inolako neurririk hartzen eta langileei ez zaie produktuen arriskuen berri ematen. ■



Eta non dago Indiako Erin Brockovich?

KROMITA ERAUZTEKO meatze handienak Afrikan eta Indian daude. Meatzariak eta inguruko herritarrek arazo ugari dituzte, batez ere edateko uran kromo hexavalente ugari dagoelako. Indiako Sukindan, esaterako, kromita meatze handienetakoa dago, eta edateko uraren %60ak behar lukeen kromo hexavalentearen bikoitza du. Munduko leku kutsatuenetako bat da eta bertako heriotzen %85ak produktu horren erauzketarekin zerikusia duela uste da.

Sukindan baino askoz hobe bizi diren zonaldeetan ere nozitu dituzte kromoaren kalteak, AEBetako Kalifornian esaterako. Pacific Gas and Electric Companyk urte luzez kutsatu zuen edateko ura; 1993an Erin Brockovich abokatuak auzia azaleratu zuen eta konpainiak indemnizazio milioiunak eman behar izan zitkien kaltetutako herritarrei. Kasua pantaila handira eraman zuten 2000. urtean.

Euskaraz aritzeko koherentzia minimo bat

Familian eta eskolan euskaraz egiten zieten arren, euren seme-alabak gaztelaniaz mintzatzen hasi zirela ikustean, elkartzen hasi ziren Mungiako (Bizkaia) Larramendi ikastolako hainbat guraso. Euskararen erabilera suspertzeko, “gurasoengandik gurasoengana” hasi dira lanean, aita-amen ohituretan eta jarreretan eraginez.

| HAZI HEZI ALDIZKARIAN (2013-06-09) |



Ezkerretik eskuinera: Garbiñe Larrauri, Agurtzane Mallona, Susana Murga, Maite Ruiz de Egiño eta Josune Urkizu. Bostak guraso eta euskara irakasle dira. Kezka berak elkartu zituen, ikastolako haurrek barra-barra egiten zuten gaztelaniaz eta haien gurasoek ere bai beraien artean.

HONAKO HAU, Mungiako eszena bat izan liteke, edo beste edozein herri euskaldunetan jaso, haurrak batzera joandako guraso euskaldunen artean ohikoak baitira gisa honetako elkarriketak ikastola atarian:

– *Pues como te decía, que en inauteris vamos a salir de andereños. Mikel, hartu bokata eta ekarri motxila, eroango dizut nik. Pues eso, no sé cuántos saldremos. Ez egin korrika, Mikel, zoaz astiroago! Pero igual seremos 8 o 10.*

– *¡A! Pues igual yo también me animo. Anetxu, itxoin! Con una peluca y unos betaurrekos. Anetxu, itxoiteko, lehenengo platanoa eta gero actimela. Hace años que no nos disfrazamos. Ahora con los txikis ya sabes. Anetxu, segi Mikelegaz.*

Prestigio kontua

ETXEAN ETA ESKOLAN euskaraz egiten badute, eta gaztelaniaz okerrago berba egiten badute, zergatik jotzen dute umeek erdarara? Galdera hori dute buruan Mungian euskara suspertzeko batzorde bat sortu duten gurasoek. Itaunak ez dauka erantzun bat eta bakarra, baina, arrazoien bila jarrita, hizkuntzaren prestigioa agertzen da oinarrian. “Haurrek, azken batean, inguruan ikusten duten horixe egiten dute –dio Mallonak–: helduek ez badute euskara harremantzeko erabiltzen, zergatik erabili behar dute eurek? Helduek gaztelaniari ematen diote prestigioa, euskaraz jakin arren erdara aukeratzen badute”.

Ereduak aipatzen dituzte, halaber, seme-alabek gaztelaniara jotzeko arrazoien artean: telebistako nahiz kaleko jende ezagunek gaztelaniaz egiten dute; horrexegatik, ama hauek beharrezko jotzen dute haurrek miresten eta jarraitzen dituzten kirolari edo

musikari ezagun euskaldunen ereduak ere ezagutaraztea. Telebista birritan aipatzen dute haurrak erdalduntzeko, eta, gainera, gero eta garaizago erdalduntzeko arrazoi gisa. “Garai batean, beti ETB1 jartzen genuen –kontatu du Urkizuk–; orain Disney Channelen ikusten dituzte marrazkiak, noski, erdaraz”. Marrazkietatik harago euskarazko ezer interesgarririk topatzea ere zaila dela dio Ruiz de Eginok: “Nerabeentzako edo handiagoentzako, ez dago ezer erakargarririk telebistan euskaraz”.

Euskarari prestigioa kentzea, ordea, ez da gaur goizeko kontua. Mallonak gogoratu du, Mungialdean, historikoki pentsatu izan dela euskara balio gabea zela, “bertoko euskaldunek ere hemen pentsatu izan dute bizkaiera ez dela egokia”. Bertako erdaldu-nentzat, berriz, euskalduna “aldeanua” izan da inguru honetan; “jendeak gutxietsi egiten zaitu euskaraz egitean”.

Eszena horiek ohiko bihurtzea, euskaldunek euskaldunen artean erdaraz egitea normal eta arrunt bilakatu izana kezka-iturri da hainbat gurasorentzat. Edo seme-alabak giro euskaldunean, etxean eta ikastolan euskaraz heziak izanagatik ere, gaztelaniara jotzen dutela ikustea.

Halaxe da Mungiaiko Larramendi ikastolako guraso Agurtzane Mallonarentzat. “Ikastolan bertan, kalean, herrian eta eskualdean euskara gero eta gutxiago entzuten dela-eta zer edo zer egin behar genuela pentsatu nuen, eta, horrela, neure antzeko kezkak dituzten gurasoak elkartu nituen”. Halaxe, *Haizi Hezi*ekin mahaiaren bueltan bildu diren bost amak –Mallona bera, Maite Ruiz de Eginok, Garbiñe Larrauri, Susana Murga eta Josune Urkizu, euskara irakasleak guztiak– eta beste batzuk elkartu ziren duela bi urte, “geure aldetik ahal genuena egiteko”. Guraso batzorde bat sortu dute ikastolaren egiturari, euskararen erabilera areagotzeko eta gurasoei euren rola-

ren garrantziaz gogoeta eragiteko. Inaki Eizmendi gizarte hezitzailearen aholkuekin plangintza sendo eta dinamikoa gauzatu dute, baliabideak eta tresnak eskainiz, seme-alabek euskaraz hitz egiteko ohitura berreskura dezaten.

Etxean bertan ikusi zuten arazoa ama hauek, Ruiz de Eginok kontatu duen eran: “Geure umeak ere, txikitatik euskara hutsean heziak izanagatik, euskara natural eta aberatsa jasoagatik eta erdararekin arazo handiak izanagatik ere, urteak aurrera joan ahala, lagunen artean eta neba-arreben artean erdaraz hasi zirela ikusi genuen. Euskara, haurrentzako, klase barruko tresna bihurtu zela ikusi genuen; ez dela harremanetarako hizkuntza”. Guztiek LHko azken urteetan edo DBHn dituzte seme-alabak, eta ohartu dira, gainera, gero eta gazteago aldatzen dutela hizkuntza umeek. “Nik igarri dut txikerra arinago hasi dela erdararako jarduerarekin”, kontatu du Urkizuk. “Jada ez da

DBHko kontua, ez da nerabezeroan kontra egiteko jarrera horregatik. LHko 2-3. mailan hasten dira euren artean eta etxean erdaraz, egun batek bestera, eta hori niretzako kezka garria da”.

Gurasoek eurek inizatiba hartzea erabaki zuten, biltzea eta ekitea, beraz. Gogoetan eta hausnarrean hasi ziren, kezkak mahai gainean jartzen, eta soluzioak bilatzen. Ikaragarriko ilusioa zutela oroitzen du Ruiz de Eginok: “Gauza handiak egin zitezkeela ikusi genuen, eta ideiak eta erronkak plazaratzen eman genituen lehen bilerak”. Hizkuntza ohiturak aldatzeko egin zuten plana handiegia iruditu zitzaion ikastolako Kontseilu errektoreari, eta martxa apur bat mantsoagotu zuten. Baina tinko eusten diote asmo nagusiari: “Gurasoak gara eredu eman behar dutenak, geu gara kontzientzia hartu eta begiak zabaltzeko behar ditugunak; eta hor eragin nahi dugu”, azaldu du Ruiz de Eginok.

Gurasoek gurasoekin lan egitea adostu zuten hasieratik, “seme-alabengan eragin nahi bagenuen, gurasoen jarreretatik eta ikuspegietatik hasi behar genuen lanean, eta hala hasi ginen”, kontatu du Mallonak. “Uste dugu gurasoak direla eredu eman behar dutenak, transmisiorako lehenengo urratsa hortik hasten da, etxetik. Geu eredu ez baldin bagara, nekez eskatuko diegu seme-alabei guk egiten ez duguna egiteko. Nik nire senarragaz, edo amagaz, edo lagunegaz, erdaraz egiten badut haiek denak euskaldunak izanik, non dago koherentzia?”.

Ikastolako gurasoen ohiturak eta jarrerak ezagutzea izan zen egin zuten hurrengo urratsa, eta, horretarako, ikastolako guraso guztientzako galde-sorta prestatu eta bidali zieten, 2011ko maiatzean. “Galde-sortak erakutsi digu mahaiaren bueltan gaudenok ez gaudela bakarrik, 600 gurasok kezka dutela euskararen erabileraren inguruan”, azaldu du Murgak; baina galde-sortaren emaitzek erakutsi diete, baita ere, guraso gehienek uste dutela ikastolako transmisioarekin, ikaskuntza bidez datorren transmisioarekin, nahikoa dela seme-alabek euskaraz egin dezaten. “Guk bestela pentsatzen dugu”, azaldu du Mallonak, “hizkuntza batek ez dauka

irauterik familiak, lagunak eta inguruak laguntzen ez badute; etxekoa, lagun artekoa, kalekoa bermatu behar dugu. Eskolako, zelanbait, bermatua baitugu; ikastolak egiten du berea”.

Gurasoengandik gurasoengana heltzea zen, beraz, helburua. Behin diagnosi bat egin ondoren, guraso euskaldunekin hasi ziren lanean. Mungia-ko ikastolako gurasoen artean oso kopuru handia da euskalduna. “Guraso euskaldun horien asmoen eta jarreraren arteko kontraesana azaldu dute galde sortako emailtzek”, azaldu du Larraurik: “Gurasoen gehiengoak azaldu du kezka seme-alaben hizkuntza-ohituren inguruan, baina eurek aitortu dute guraso euskaldunek ere erdarara jotzen dutela gehienetan, nahiz eta hizkuntzen transmisioan eragiten duten faktoreetatik gehien-gehienek txikitatik euskaraz haztea zela eraginkorra aitortzen duten”. Gurasoek euren seme-alabak euskaldunak izan daitezen nahi badute, “koherente izateko ahalegina” egin behar dutela dio Ruiz de Eginok, “gurasoek erabaki bat hartu ezean, eta euren jarrerak aldatu ezean, tribuak hartuko ditu erabakiak; eta, hemen, tribuak erdaraz egiten du”. Izan ere, atsekabez onartzen dute irakasleok, sonak eta soziolinguistikako datuek bestela badiote ere –inkesten arabera, oso herri euskalduna da Mungia– euskararen kale erabilera ez dela %10era iristen. “Horixe da egia santua –dio Ruiz de Eginok–. Kanean oso gutxi entzuten da euskara”.

Kontraesanak agerian jarri, begiak zabaltu eta koherentzia ariketa bat egitera, edo sinpleki, euskaldunen artean euskaraz egitera gonbidatzen ditu gurasoak talde eragile honek. Horretarako, gurasoen euren zaletasunetatik abiatzea erabaki dute. “Haurrengan eragiteko, haurren bizipenak euskararekin lotu behar ditugu; baina horren aurretik, gurasoen euren bizipenak lotu behar ditugu euskararekin”, azaldu du euren proposamenaren muina Mallonak. “Zaletasunetan jardun behar dugu euskaraz, antzerkian, irrati-arloan, mendi-irteeretan, teknologia berrietan... euskaraz egin badezaket, hasieran igoal behartu

egin beharko dut neure burua jarrera aldatzera, baina momentu batetik aurrera euskaraz egingo dut poteak hartzen, edo zineman edo dena delakoan”.

Iñaki Eizmendiren laguntzarekin, euskaraz bizitzeko baliabideak eskaintzen ari zaizkie talde eragilea ikastolako gurasoei. Eta aurrera begira, diagnosa oinarri harturik, hiru urteko plana osatu dute, jendea kontzientziatzeko, tresnak eskaintzeko eta emailtzak ikusteko. Lehen urtean Haur Hezkuntzan umeak dauzkaten gurasoei egingo dute batez ere lana, “eurek konpromiso bat erakuts dezaten gurako genduke, talde bat eratzea eta apurka-apurka has dadila lanean. Gero horiek etorriko dira gorantz, eta haien ereduak ikusita, gainerako gurasoak erakartzea eta animatzea nahiko genduke”. Mallonak azaldu duenari eutsiz, Urkizuk ere estrategikotzat jotzen du Haur Hezkuntzako gurasoei hastea, batetik, haiek euskaraz ikasitakoak direlako, eta, bigarrenik, haurrak txikiak direnean haiek jagoten dituzten bitartean gurasoen arteko harremana gero izango dena baino estuagoa izango delako: “Lehen hartu-emanak euskaraz egiten badute, errazagoa izango da hala jarraitzea”.

Bigarren urratsa guraso erdaldunen jarrera euskararekiko positiboa izatea litzateke. “En erdara, mesedez” dioten ‘euskaldungor’ horien jarrera aldatzea”, dio Urkizuk. Guraso batengatik edo birengatik batzarrak erdaraz egiten dituzte ikastolan, “eta hori aldatzea bera lorpen handia izango litzateke”. Hori eta hemendik urte batzuetara eskolara umeak batzera etortzean, entzuten den hizkuntza euskara izatea, “orduan helburua betea edukiko genduke”. ■

BESARO LANDA HOTELA




*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 145 dokumental eskura

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko erreboltak
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

**EGUZKI
BIDEOAK**

elkarlanean



Galeseko gazteen herenak baino ez du erabiltzen galesa lagunekin

IKERKETA BERRIEN EMAITZAK dituzte Galesen, besteak beste gazteei galdetu diete galesaren erabileraz. 16 eta 24 urte arteko gazteen erdiek esan dute galesez erraz hitz egiteko gai direla. Hirutik batek erabiltzen du galesa lagunekin.

Carmarthenshire Galesko hirugarren lurralde zabalena da, 180.000 biztanle ditu, eta gales hiztun kopuruaren arabera ere hirugarren lurraldea da. Morfydd Evans Pontyberem herriko posta administraria da. Garai batean, herri horretako postetxean galesa baino ez zen entzuten. *The Guardian*ek egindako erreportajea, Evansek dio gaur egun ez dela horrelakorik: “Jende helduak oraindik beti hitz egiten du galesez, baina gazteek ez. Hitz egiteko gai dira. Eskolan ikasten dute, baina ez erabiltzea aukeratu dute. Helduok tristatu egiten gara. Gu gure kulturaz eta hizkuntzaz harro gaude, eta gehiago egin beharra dago hizkuntza babesteko”. Carmarthenshire eskualdean, 2001ean, baziren bost eremu non biztanleen %70 baino gehiagok galesa hitz egiten zuen. Gaur egun, eremu baka-rean ere ez dira iristen portzentaje horretara.

Lagunekin ingelesez egiteaz gain, interneten ere ingelesez nabigatzen dute gazteek. Pontyberem herrian hizkuntzaren aldeko borrokan dabilen Cathryn Ings-en ustez, “gazteengan dugu esperantza, baina botere erraldoia duen hizkuntzaren ondoan bizi bazara oso zaila da. Gazteak ingelesarekin bonbardatzen dituzte ordenagailu



Errepideko oharra bi hizkuntzetan, goian ingelesez eta behean galesez.

jokoetan eta sare sozialetan”. Ingsen iritziz, badira bi eragozpen galesez hitz egiteko: batetik, uste izatea galesa ez dela edonork hitz egiteko hizkuntza, eta bestetik, hiztunek euren hizkuntza mailarekiko ziurtasunik ez izatea. Akasduen galesa baino, ingeles ona nahiago dutela, alegia.

Herri berean, Pontyberem-en, kafetegian, galesez ari diren helduen ondoko mahaian gazteak ingelesez ari dira. Horietako lautik hiruk galesez egiten du egunero-koan, baina laugarrenak ziurtasun falta du, beraz laurak ari dira ingelesez.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Urkulluren ongizate estatua

ARDURADUN POLITIKO ETA EKONOMIKOAK hizkera arraroarekin ohituta gauzkate herritarrok, baina euren hitzek askotan ondorio sozial larriak ezkututzen dituzte. Eta komeni da argitzea, herritarrek ez baitira ergelak. Joan den astean, Urkullu lehendakariak nazioarteko eszenatoki batean zera esan zuen: “XXI. mendeko ongizate estatua ez da XX. mendekoaren berdina izango, Estatuaren arlo publikoaren gaitasuna aldatzen ari delako”. Eta honakoa gehitu zuen: “XXI. mendeko Estatuari jarduera publikoaren monopolioa murriztu zaio eta ez da herritarrek eskatzen dituen zerbitzu guztien bermatzaile izango”.

Urkullurentzat zer da ongizate estatua? Azpiegitura handiek dakartena? Zeren eta AHTrentzat, Sollube eta Autzaganeko tunelentzat, Pasaiako kanpo portuarentzat eta halakoentzat badago dirurik. Ez al da ongizatea lortuko ospitale sareak sendotuz, osasun zerbitzuak hobetuz, enplegua sortuz, langabetuak lagunduz —Hego Euskal Herrian 223.832 lagun daude

lanik gabe—, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak ordainduz, pentsionistentzako prestazioak igoz eta menpekotasuna dutenei edo immigranteei harrera eginez?

Lehendakariak eta bestelako arduradun politikoei argitu dezatela. Zergatik ari da aldatzen Estatuaren eta arlo publikoaren gaitasuna? Zergatik halako presa azpiegitura handi, antisozial eta antiekonomikoak eraikitzeke? Ez badago dirurik ongizate estatua mantentzeko, zergatik ez da paradisu fiskalak eta iruzurra deuseztatuko dituen eta boteretsuak zamatuko dituen zerga erreforma erradikala martxan jartzen? Hemen, aldatzen ari dena gobernatzen gaituztenen interesak dira. Bankuen zerbitzura daude, herritarren zerbitzura baino. Hortxe daude bankuak salbatzeko herritarrei lapurtutako diru publikoko milaka milioiak.

Juan Mari Arregi



Amazonen kazetari gazteak aurkitu zuen usina orwelldarra

Amazoni liburua erostea gaur herritar korriente baten ohitura bihurtu da. Zer dauka atzean, munduko gizonik aberatsenetakoa den ugazabaz gain? 26 urteko kazetari frantsesak hilabeteko oporrak baliatu ditu multinazionalaren biltegietan lan egiteko. Liburutegia ez baina XXI. mendeko faktoria industrialetako morrontza aurkitu du.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

JEAN-BAPTISTE MALET (1987) *Goliath* astekari kristau kritikoan daukan lanak utzitako tarteetan prestatu zen Amazon multinazionalaren enplegu deialdietako baterako. Zehazkiago, lan prekarioetan liderra den Adecco konpainiaren frogetara aurkezteko. Eguberri aurreko kanpainarako Frantziako Amazonek 1.200 langile kontratatzen ditu, Montelimar hiriko biltegitirako. Oporrak programatu ikerlanerako aprobetxatzeko, prestatu ugazabek bilatzen duten perfila eskaintzeko, elkarrizketetan ezkutatu kazetaria zenik, eta barrura. “*En Amazonie. Infiltré dans le ‘meilleur des mondes’*” liburuan kontatu du aurkitutakoa.

Picker lanean ariko da Malet, bil-tzaile; milaka kultur ekoizpenen artean disko, liburu eta DVD bakoitza dagoen *bin* edo ontzitik jasota, enbalatzera *packerrei* eraman behar dizkietenetako bat.

“B zona, 133. lerroa, B altueran, 405. gunean. Heldu naiz 133. lerro-ra, banoa 405. gunera, aurkitu dut hura daukan kaxa. *Babar* da, elefante txikia (...) Orgatxo bat edo salgailetako bat bezala, neu ere Amazon objektu bat naiz, daramadan txartelaren [*badge*] barra kodeak markatzen du nire izaera fisikoa”.

Ongi etorria ekonomia berriaren tenplura. Ezagutuko duzu liburuen eta kultur-aisialdi produktuen sal-

menta irauli duen mastodontearen mantra hirukoitza: “*Work hard, have fun, make history*”, alegia, gogor egin ezazu lana, dibertitu zaitez, historia-ren protagonista izan. Lastima zortzi orduz egin beharreko lanak dibertigarritik asko ez izatea.

Gaueko ekipoan arituko da Malet, astean bost gau, Eguberri hurbildu ahala sei. Zortzi ordutan 20 kilometro inguru egingo ditu oinez batera eta bestera bost futbol-zelairen zabalera daukan almatzen erraldoian. Zangoek beren karranpekin abisatzen diotenaz gain Maletek nola dakien zenbat kilometro egin dituen gauero? Langilearen errendimendua gainbeheratzen du sistema informatikoak diotso.

Bere gaineko enkargatuak ere instantean daki *picker* bakoitza non zein produkturen bila dabilen, *packer* bakoitzak zer zorroratzen duen. Zein erritmotan produzitzen duten, zenbat minututan zenbat kilometro bilaka, geldirik non-zenbat denboraz egin diren. Ez zaitez gelditu berriketan zure lankidearekin, orgatxoan daramazun makinak salatuko zaitu.

Kontua egunetik egunera hobetzea baita errendimendua, langileak gaur daukan tarea da atzoko emaitza hobetzea. Berdin dio 26 urteko gazte kirolaria baldin bazara edo 50 urteko ama familiako dibortziatu berria: “*Work hard, have fun, make his-*

La Metropole guneak daukan argazkian, Amazonen biltegi baten irudia. Ongi etorri scan-wifiaren erresumara. Produktuekin batera behargina dago sartuta trazabilitatearen katean etengabe, bere scan-wifiari esker —bide batez esanda, eroslea ere kate berean sartuta dago, Amazonen erosketa edo produktuen bilaketa noizbait egin duena ohartu denez, makina ez da ahaztuko—. Erreleboa hasterekin, *pickerrak* abian jarriko du lanaldiari dagokion multzoa, apaletatik bilduta enbalajeko lankideari entregatu beharreko gaien zerrenda. Bakoitzaren koordinadekin. Hura harturik, ordenadoreak aginduko dio hurrena zein bildu, kalkulatz langilea non dagoen. Programa informatikoak zaintzen du joan-etorriak ahalik eta arinenak izatea. *Gaitetzen liberti!* dio Amazonek. Jean-Baptiste Malet, aldiz, George Orwellean uste du ugazabak hizkeraren jabe eginez nahi duela aginte osoaren jabe bilakatu.

tory”. Ingeleseko zapo-hizkeraren gibelean, logistikako biltegi handien kudeaketa, industria postmodernoa bere gordinenean.

9,275 euro gordin orduko, Frantziako gutxieneko soldata doi-doi. Zortzi ordutan hoge minutuko bi atsedenaldi, bat enpresaren kargu, bestea langilearen kontu. Geldialdi bakoitzean kontrola pasatu, ezer ostu ez duzula ziurtatzeko.

Esku batez, langilea kultura korporatiboz blai bizi nahi du ugazabak, *Amazon giroan*. Bestearekin, erabateko menpekotasuna inposatzen dio konfidentzialtasun arau estuak sinaraziz: enpresan ari diren izenak publikoan esateko debekua, prentsari nagusien baimenik gabe hitz egiteko debekua...

Liburudenda? Logistika industrial

Jean-Baptiste Malet ez da anekdotetan kateaturik geratu, Amazoneko hilabeteko esperientziak kapitalismo berriaz ikasi dituenak ondo harilkatzeko gai azaldu da kazetari gaztea Frantziako prentsa, irrati eta telebistetan egin dizkieten elkarrizketan. Interneten ikus daitezke.

Albiste saioan izandako solasaldi batean esatakiak iradoki dio Maleti denok garela egoeraren konplize, “zeuk ere marka ezagun baten logoa daramazu soinean”, idazleak *Lacoste* krokodiloa petxuan. “Inoiz



ez dut pentsatu sistema kapitalista ustel hau hondoratu behar zuen zaldun zuria nintzenik”, erantzungo dio xume. Izan ere, errealitate ezkutu argitara ateratzeko ahalegina zuzen egitea ez al da aski?

Gaztea baina ez nobatoa, Maletek aurretik “*Derrière les lignes du Front*” dauka argitaratua, Front National ultraeskuindarraren trapaak haizatu. Europe Ecologieren zerrendetan joana da hauteskunderen batean. Lan prekarioa zer den ere gaztetatik ezagutzen du. Liburuan, obreroaren neke fisikoetatik askoz haratago doa analisisa.

“Jeff Bezosk —dio Maletek *Sud-Ouest*eko Gabriel Blaiseri— liburua mespretxatzeaz gain oso harreman ideologikoa dauka munduarekin.

Ultraliberalizat dauka bere burua, Estatuari bere forma guztietan aurka eginez (aldi berean subentzioei uko egin gabe, ordea...) baina bere enpresan kolektibismo berri bat antolatu du. Haren lantokiak base militarrek bailira daude zainduak eta libertateak asasinatzen dituen giro batean egiten dute behar langileek (miaketak, hitz egiteko debekuak, konfidentzialtasun arau absurdoak). Esku-langile xume batek sekretu industrialak haizatu ahal izango balitu bezala!”.

Kritikan haratago doa. Daukan indarra aprobetxatzen du Amazonek pagatzeko soldata harrigarriki apalak, morrontzan lan egiteko prest dauden enplegatuak aurkitzen ditu langabezia tasa handieneko

guneetan. Bolada batean saldu ditzake liburuak eta gaineratikoak dirua galduz alboan daukan konkurrentzia, funtsean liburu-dendak, izan txiki klasikoak edo FNAC edo Virgin bezalako handiak, hondortzeko. Gero etekinak nahi dituen lekuan deklaratuko ditu, Frantzian salduak Luxenburgoren esaterako (2011n 889 milioi euroko fakturazio errealekin 3,9 milioi pagatu zituen zergetan!), Estatuaren diru iturriak pittin bat gehiago agortuz.

Lillen Pas-de-Calais departamentuko liburu saltzaileen elkarteak gonbidaturik ekainean emandako hitzaldian esan zuen Maletek jendeak uste duenaren kontra Amazon ez dela liburu edo kultur produktuen saltzailea, logistikako korporazioa baizik, beste edozein industria globalizaturen gisa antolatua. Txinako manufakturen antza gehiago duena Europako kultur enpresena baino.


2012an Amazonek 97.000 langilerekin 61.000 milioi dolarreko salmentak egin zituen. Bezos berari *Bloombergek* kalkulatu zion 28.000 milioi dolarreko jabego pertsonala. Bere burua *libertarian* jotzen duen gizon hau egin da 2013an *The Washington Post* egunkariaren jabe, 250 milioi dolarretan erosita Graham familiari.

Erosi duen egunkariari deklaratu dio: “Hiru ideia erabili ditugu borrokan Amazonen eta haiekin garaitu dugu: denen aurretik bezeroa, sormena eta pazientzia”. Pazientzia... *The Washington Post*eko langileek laster galdu behar dutena. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia





Legebiltzarra, bakerako fororik egokiena?

IAZKO udaberrian EAJ, PSE, PP eta Aralarreko hiru parlamentarik Eusko Legebiltzarreko bake ponentziaren oinarriak adostu zituzten. Motza baina urratsa, pentsa zitekeen, baita ekimen hartatik ezker abertzalea kanpo geratuko bazen ere. Pentsatzekoa zen hurrengo legealdiaren normaltasunak lortuko zuela mahaiaren laugarren hanka bertaratzea. Gatazka luzeak denbora behar zuela eta abarreko diskurtsoa. Jose Antonio Pastor PSE-EEko bozeramaileak argi zioen pozarren: “Ez dugu zertan inoren zain egon behar—ezker abertzaleari buruz—; uste dut gu has gaitezkeela”.

Arrazoi zuen, hurrengo legealdian hasi ziren, eta herren berriz ere. Aurtengo otsailean Bake eta Bizikidetzarako lan taldearen sorrera onartu zuen Eusko Legebiltzarra EAJ eta PSE-EEren baietzarekin, PP eta UPyDren aurkako botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin. PPK atzerako urratsa eman zuen, EH Bilduri nahiko eskatzen ez zitzaioelakoan. Carmelo Barriok azaltzen zuen gisan, “EH Bilduk ez ditu oraindik gaitzetsi terrorismoa eta ETAren atentatuak”. Ezta ere 2012ko apirilean, baina orduan ez zegoen EH Bildurik legebiltzarrean. Ponentziaren edukiagatik abstenitu arren, EH Bilduk bertan parte hartzea erabaki zuen apirilaren 11ko eratze batzarrean.

Lau hilabete eta hiruzpalau bilera geroago EAJko BBBko buru Itxaso Atutxak argi esan du irailaren 13ko bilera deiaaren aurrean: “Atzeratu behar bada atzeratuko da, datak ezin baitu zapuztu herri honentzat hain garrantzitsua den zerbait”. Eta atzeratuko da.



Baina hain garrantzitsua ote bakea eta normalizazio politikoa gure herriarentzat, ETAk jardun armatua utzi eta handik bi urtera Eusko Legebiltzarrean ezin denean bake elkarrizketarik hasi? Eta denak adierazten du ezetz, bestela, adostutako fororen batean serio hitz egiten hasita beharko luketelako. Oraingoz behintzat, alderdi nagusien eta, bereziki, bake prozesuarekiko Urkullu lehendakariaren ezintasunaren beste adierazle bat da hau. Udazkenean izango dira hainbat ekimen bake prozesua bultzatzeko eta badirudi PSE-EEK ez duela inongo gogorik ponentziaren lana eta bera ekimen horiekin nahastua izateko. Aieteko Konferentziaren bigarren kapitulurik ez, pentsatuko du akaso.

ZORU ETIKO ospetsuan ei dago oztopo nagusia. PSEren arabera, ezker abertzaleak ez du onartu nahi ponentziaren zeregin nagusia ETAren iragana zilegitasun gabe uztea dela, eta beraz, EH Bilduk jarrera aldatuko ez balu, ez luke zentzurik bertan jarraitzeak. Munduan izan diren bake prozesu eta normalizazio politikorako hasieren antipodetan den jarrera biltzen da pentsa-

molde horretan, ezinezkoa dena ezinezkoa baita.


Eta ezinezkoa da bizi izandako gatazka eta sufrimenduaren kontatera bakar bat izatea, ezta ere ezker abertzaleak bere azken 50 urteko jardunaren irakurketarik kritikoena egingo balu ere. Konponbidean lehen eta bigarren mailako biktimak bereiztea ezinezkoa den moduan. Edo enpatia, barkamena eta sentimenduak legez arautu. Gaur gaurkoz, eta hori da larriena ETAren iragarpenetik ia bi urtera, badirudi indarra prozesuan jarri behar dela eta ez hainbeste haren edukietan. Erritmo honetan, ezkutuko biderik ez badago bederen, Mendebaldeko Saharakoa eta Euskal Herrikoak izan behar dute gatazka armatua amaitu eta bake prozesu bidezkorik bideratzen ez dituzten munduko herrialde bakarretakoak. Eta gertatuko balitz fase honetan Legebiltzarra oraindik ez dela fororik egokiena halako prozesu bat bideratzeko? Ez ote dira legebiltzarreko ohiko tirabira eta hika-mikak halako gune batek eskatzen duen iraunkortasun, lasaitasun eta enpatia txarrerako?


PP enrokatur dago Madrilen, PSOE beldur da honek euskal auziaz egingo duen erabileraz eta arriskatzeko behar eta presa handirik ere ez du sentitzen. EAJ deseroso da egoera aurrera atera ezinik, baina sufrimenduaren presio barik. Eta ezker abertzalea estu, presoan zurrumbilo itogarrian harrapatua eta egoera mugiarazteko larri. Espainiaren eta Parot doktrinaren gaitzespena berretsiz desblokeatuko du egoera Estrasburgeko Giza Eskubideen Auzitegiak datozen egun edo asteetan? ■



ASTE HONETAKO

zozketa





**A fuego negro
jatetxea**

2 lagunentzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1



**EUREKA!
zientzia museoa**

3 harpidunentzatzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

2



**Bilboko
Euskal Museoa**

3 harpidunentzatzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



**Artez euskara
zerbitzua**

4 harpidunentzatzat
irakasle agenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2380. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Joxe Inaxio Mantzisor (Zumaia)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Sabina Arruabarrena Sukia (Hondarribia)
- Raco De La Corbella (Valentzia)
- Kari Lopez Davallillo (Bañuelos, Galarreta)

ERTZEKO ZATIAK liburua

- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
- Pedro Azkue Berasaluze (Zarautz)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Miren Arrizabalaga Arrizabalaga (Berritxu)
- Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)
- Migel Anjel Mintegi Larraza (Beasain)
- Josu Iztueta Azkue (Tolosa)

EKAINBERRI

- Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)
- Josu Belar Unamuno (Arrasate)
- Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com